



AULKI GURPILDUNARI LOTUAK Eguneroko bizimodua egiteko zailtasunak

Oinez ibiltzeko aukera dugunok somatu ere egiten ez ditugun detaileak gaindiezinezko oztopoak bihurtzen dira aulkian mugitu behar dutenentzat.



Elkarrizketa:

**Joxe Esteban
TELLETXEA**

«Izokina ateratzen hasten bazara, droga da hori» segurtatzen du Berako arrantzale honek. Aurten, ordea, hagitz motel doaie izokin arrantza. Oraindik ez dute bakar bat ere ateritzea lortu Bidasoan, eta ikaragarriko grinarekin ari dira arrantzale guziak. «Auniztan urik ez dagoela izaten da problema, baina aurten ura izandu da eta izokirik ez da ikusi». **TSP 3**

6 Iritzia: Marihuana landatu eta erretzeko debekua

Gai honen inguruko eritzia eskatu diegu Askagintzako kide bati, Bortzirietako Gizarte Langileari eta Baztango Mari Taldeari.

28 Kirola: Jexux Mari Almandoz Lesakako pilotaria

“Euria ari zuen batean frontoian sartu eta hasi nintzen pilotan, kasualidadez”.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!




Errenta Aitorpena

Kutxak lagunduko dizu

Argan urteetan bezala, zerbitzu berezia jarri dugu gure bezeroen esku Errentaren Aitorpena egiteko. Deltu txanda hartzeko

eta, Club 10 edo Club Edad de Oro-ko bazkide bazara, txartelaren zenbakia emanaz, ordua hartuko dizugu lehentasunarekin eta ongi datorkizunean.



DATUAK.....

 **Joxe Esteban TELLETXEA** Berako arrantzalea

“Izokina ateratzen hasten bazara, droga da hori”

ARRANTZA DENBORALDIA IDEKI ZENETIK HILABETE TERDI BAINO GEHIAGO JOAN DA ETA ORAINDIK EZ DA IZOKIN BAKAR BAT ERE ATERI BIDASOAN. ZERGATIK OTE?

Ez dakigu. Aurtengo arrantza hagitz motel dago. Bidasoan bi izokin klase izaten dira. Bat haundi horietatik, eta bertzea apiril-arraina deitzen dena, geroxeago etortzen dena. Badi-ra urte batzuk lehengo izokin klasea beranduego etortzen dela. Dena den, aurten bada izokin bat ateria, 8,6 kilokoa, baino eria.


ORAIN ARTEKO EGURALDI ZAKARRA, GAINERA, EGOKIA IZANDU DA ARRANTZARAKO, EZTA?

Bai, behinere baino hobea izandu da orain arte, urak lagundu du. Auniztan urik ez dagoela izaten da problema, baino aurten ura izandu da eta izokirik ez da ikusi.

Hori ez da hemen bertako problema. Itsasotik etortzen direnak nonbait ere joanen dira, Gipuzkoan bertan Uru-mean izokinak ikusi omen dituzte, baino han ez da libre izokina arrantzatzea. Heldu den urtean libratuko omen dute.

IZOKIN TTIKIAK BOTATZEN SEGITZEN DUTE?

Bai. Urtero-urtero ari dira izokin ttikiak bota-



«Ekainean, zizarea libratzen denean goizeko 5etan jeikitzen naiz egunero».

tzen, aurten 9.200 bota dituzte. 16-18 zentimetro bitartekoak botatzen dira hemen. Aurten Berako Ardanbiden arraul-tzeak hartu eta Mugairiko haztegi eraman dituzte. Heldu den urtean tenore honetan botako dira hoiiek.

LEHENBIZIKOA ATERATZEN DUENAK DIRU GEHIAGO ERAMANEN DU AURTEN?

Igual da noiz ateri, beti 20.000 pezetatik goiti pagatzen baitute kilo. Joan den urtean lehenbizikoa 25.000 pagatu zuten. Bigarrenera, ordea, bada kristoren saltoa, erdia eta guttiago. Iaz, 9.500 ordaindu zuten kilo.

ERRATEN DUTE ARRANTZALEEK EZ DUZUELA LO TRANKIL EGITEN DENBORALDIA AKAUTU BITARTEAN. EGIA DA HORI?

Egia 'berdaderoa' da hori. Beti ametsa duzu izokina ateratzea. Arratsean ohatzera lo egite-

ra joan eta goizean jeiki behar duzuna baino bi ordu lehenago ernatua zara auniztan. Ni behinpen hala ibiltzen naiz, eta bertzeak ere...

ZER DA IZOKIN ARRANTZA, AFIZIOA EDO BIZIOA?

Afizioa nik uste. Baina bizioa berak ematen du ateritzen hasi ezkerro. Ateritzen hasten bazara, droga da hori. Idukitzen zaizu egunero ateri behar duzula. Baina pazientzia haundia behar da, orduak eta orduak... Guk horrela disfrutatzen dugu.

❖ 77 urte eginen ditu aurten Zalain Zokoko Joxek. Astearteetan ezik, asteko egun guzietan joaten da arrantzara denboraldiak irauten duen bitartean.

❖ Azken hiru urtetan 14 izokin ateri ditu, eta iaz bera izan zen Bidasoako erregea, zazpirekin.

❖ Aurtengo denboraldian, ordea, ez da oraindik alerik ere arrantzatu Bidasoan, eta diotenez, somatu ere ez omen dira somatzen.

❖ Lehendabiziko izokina ateratzeko grina haundia izaten dute arrantzaleek, arras ongi pagatzen baitute kilo. Hala ere, orain ez omen dute lehen bezala nonahi erosten.


► *“Eguraldia inoiz baino hobea izandu da. Auniztan urik ez dagoela izaten da arazoa, baino aurten ura izandu da eta izokirik ez da ikusi.”*

TESTUA ETA ARGAZKIA:

ASIER GOGORZA

Eritasun edo istripu baten ondorioz, aulki gurpildun bati lotua egon beharra ez da batere egoera xamurra inorentzat. Arazo honi, eguneroko bizimodu normala egiteko topatzen dituzten zailtasunak gehitu behar zaizkio: eskailerak, ate estuak, telefono kabina altuak, lur azpiko aparkalekuak, espaloiak, koxkak... Oinez ibiltzeko aukera dugunok ohartu ere ez gara egiten detaile tiki hauetaz, baina aulkian mugitu behar dutenentzat gaindiezinezko oztopo bihurtzen dira.0

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA



AULKI GURPILDUNARI LOTUAK

Eguneroko bizimodua egiteko zailtasunak

Arazoa hurbiletik ezagutzen ez duenak aulki gurpildunetan dabilzan denek buruhauste beretsuak izanen dituztela pentsa badezake ere, bakoitzak bere problematika berezia du, Julen Lekuona beratarrak gogorarazten duenez. «Batzuk mugikortasuna dute eta sentibiltaterik ez, bertzeak alderantziz, bertze batzuk ez bata eta ez bertzea, hori da nire kásua». Berak auto istripu baten ondorioz medulan lesio bat izan zuen. Zazpi hila-

bete Toledoko ospitalean igarozuen eta geroztik aulkia-ekin bizitzera ohitu behar izan du.

«Erakundeek gehiago egin beharko lukete»

Etxean nolabait moldatzen dira, gehienek aulki gurpildunari egokituz obrak egin baitituzte. Pakinko Igarzabal lesakarrak etxer aldatu behar izan du eta bere neurriak egin (pasabide zabala, komunean buelta emateko lekua...), baina ez du obra egiteko lagun-tzaririk izan. «Trabak bai, baimenak lortzeko eta...». Julenen etxean ere obra dexente egin behar izan dituzte: «Bigarren pi-

su batean bizi naiz eta gara-jetik zuzenean igogailua jarri genuen. Autoari ere zenbait moldaketa egin genizkion». Baina etxeko atetik ateratzean hasten dira beraien burukominak. Julenek dioenez, «Bera aulkian ibiltzeko herri zaila da. %8ko maldak baino haundiagoak ezin dira igo eta Bera ez da xelaia. Hor dago Herriko Etxea, eliza, ostatuak, dendak, karriken egoera, zuloak, espaloiak...». Ibardinen, aldiz, arazorik ez dago. «Frantziar eta Europar, orokorrean, arazo hauek lehenago ikusi dituzte eta askoz aurreratuago daude. Ibardingo bentak horretara egokitu behar

izan dute».

Pakinkoren ustez erakundeak dira laguntza gehien eskaini behar luketenak eta azkenean, guttien egiten dutenak. «Lesakan bertan badira adibide mingarriak: futbol zelaia, joan den urtean estreinatua. Nire betiko afizioa izan da igandetan Beti Gazte ikustea eta orain ezin dut, harmailetara joateko malda tiki bat egin beharrean eskaillerak paratu dituztelako. Fabrikara doaien errepidetik ikusten ditut orain partiduak, baina zelaiaren buelta guzian pinuak sartu dituzte eta hemendik bizpahiru urtera ez dut deus ikusiko. Baina, ez da

hori kontua... 100 milioiko aurrekontua duen futbol zelai batean ez dute gure arazoa konpontzeko neurririk hartu, ezta pezeta bat gastatu ere». Burmuin ezinduen futbol txapelketa Lesakan eginen dela jakin zuenean «koleratu nintzen. Herriaren publizitatea egiteko balioko du, baina publizitatea txarra... Bakarren bat aulki gurgildunean etorriko dela pentsatzen dut, eta horrek zer egin behar du?». Hor daude, baita ere Plaza Zaharra, «aulkiarekin sartzea ezinezkoa da, izugarritzko eskailerak eta koxkak baitaude» eta liburutegia: «Nik ezin dut liburu bat hartzera joan, Herriko Etxearen hirugarren pisuan dagoelako, baina adineko jendearentzat ere hagit zaila da». Pakinkoren ustez, aintzinako eraikuntza zaharren kasuan ulertzekoa da honelako arazoak izatea, baina «Herriko Etxea eta plaza azken hamar urteotan zaharberritu dituzte eta futbol zelaiak joan den urtean egin zuten».

«Gero eta gehiago hartzen gaituzte kontuan»

Julen Iruñeko arkitektura bulego batean ari da lanean eta arazo hauek orain gehiago hartzen direla kontuan uste du. «Obra berriak egiterakoan erakunde publikoak hasi dira ezinduak kontuan hartzen, hipermerkatu haundiek ez dute oztopo arkitektonikorik...». Bere erranetan, «proiektua egiten denean da gauzak ongi egiteko momentua, gero zaila eta garestia suertatzen da». Publikoari zabaldutako lekuetan moldaketak egiten direnean, ezinduei oztopoak kentzera behartuta daude legez, baina Lekuonaren ustez «ez dute legea betetzen eta ez zaie betearazten ere».

Eguneroko bizimodua zaila ez ezik, garestia izaten da beraiantzat. «Aulki honek 400.000 pezeta balio du eta hiru urtetik edo aldatu behar duzu, kojina, 90.000 pezeta, sendagaiak... Erreabilitazioa hasieran Osasunbideak ordaintzen du, bi urtez gehienez, baina egoera egonkortzen denean, gero zure kontura egin behar duzu» dio ASPAIN erakundeko kide den Julenek.

Pakinkok erran digunaren arabera, «lagunen eta fami-

«Etxez etxeko zerbitzua aulki gurgildunean dabilzanei ere zabalik dago»



X Zer egiten da Gizarte Zerbitzuetatik aulki gurgildunean dabilzan pertsonen laguntzeko?

▶ Momentu honetan, autoan eramateko eta normalean de-

bekatuta dauden lekuetan autoa utzi ahal izateko agiriak prestatu ditugu. Batez ere Irun, Iruña edo Donostiara joaten zirenean arazo hori izaten zuten, badaude aparkaleku bereziak baina hemengoek ez zuten beraien ezintasuna frogatzeko agiriak. Udaletxe horiekin harremanetan jarri gara eta ez dute arazorik jarri. Bortzirietan 50 bat lagun ditugu ezintasunen batekin eta gutti batzuek baino ez diote agiri honi probetxua atera ahal, baina aukera eman behar diegularakoan gaude. Beraz, denei eskutitz bana bidali diegu.

X Etxebizitza moldatzeko eta izaten da dirulaguntzarik?

▶ Erakundeen eskutik izaten

dira honelako dirulaguntzak. Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate eta Etxebizitza Sailek, Cederna-Garalurrek edo ONCE Fundazioak izaten dituzte honelako subentzioak, baina baldintza batzuk bete behar dira.

X Epe laburrean bertzelako kanpainak egiteko asmorik baduzue?


▶ Aulkian dabilen jendearen pentsatuta, momentu honetan ez dugu bertzerik esku artean, baina eskualdeko Gizarte Zerbitzuen izenean gogorarazi nahi nuke etxeko zerbitzua –normalean adineko jendeari zuzendua dagoela pentsatzen duguna– pertsona hauei ere eskaintzen zaiela.



liaren laguntza hagit garrantzitsua izan da, beti ondoan dituzu eta hori eskertu nahi nuke hemendik». Gizarteak ere, arazoa ulertzen duela uste du. «Ikusten badute, zuk dituzun zailtasunak entenditzen dituzte». Julen iritzi berekoa da, baina erruki begiradetan ere erreparatu du. «Orain gutxi arte, paraplejiakoa hemen ez zen etxetik ateratzen eta bizi-itzaropena ere laburragoa zuten. Ateratzen hasi gara eta hurrek eta agurrek begiratzen gaituzte, batez ere».

«Etxetik ateratzeko gero eta gogo guttiago dut»

Pakinko, eritasun hereditario bat dela medio dago aulki gurgildunari lotua. «17-18 urterekin hasi zitzaidan eta pixkan-pixkan gehiagora joaten da. Gorputz guzti indarririk gabe gelditzen da, ez hankak bakarrik, baita besoak ere». Irtenbiderik ez duenez ez du errehabilitaziorik egiten. Gainera ez du inoiz elkarte batean sartzeko asmorik izan. «Lesakan bada bertze neska bat nere kasu berarekin, eta solasten dugu, baina ez dut elkarte batean sartu nahi, beti gauza berari bueltak eman, beti horretaz so-




«Eraikuntza berrietan, proiektua egin denean hartu behar dira kontuan ezinduen arazoak, behin eginda gero moldatzea zaila eta garestia baita»

lastu... nahiago dut nire bizi-modua egin». Astegunetz ordenagailuan aritu, irakurri, paseo bat eman eta asteburuetan lagunekin kartetan aritu, tragoxka batzuk hartu... Hori izaten da bere programa, baina azken honetan ere zail-

tasunak ditu, «ostatu gehiengotan eskalak paratu baitituzte sartzeko, bertze batek atea estuegia. Berdin gertatzen da banketxeetan, komertzioetan... Etxetik ateratzeko gero eta gogo guttiago izaten diat». ■

Eritasun edo istripu baten ondorioz, aulki gurpildun bati lotua egon beharra ez da batere egoera xamurra inorentzat. Arazo honi, eguneroko bizimodu normala egiteko topatzen dituzten zailtasunak gehitu behar zaizkio: eskailerak, ate estuak, telefono kabina altuak, lur azpiko aparkalekuak, espaloiak, koxkak... Oinez ibiltzeko aukera dugunok ohartu ere ez gara egiten detaile ttiki hauetaz, baina aulkian mugitu behar dutenentzat gaindiezinezko oztopo bihurtzen dira.0

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA



AULKI GURPILDUNARI LOTUAK Eguneroko bizimodua egiteko zailtasunak

Arazoa hurbiletik ezagutzen ez duenak aulki gurpildunaren dabilzan denek buruhauste beretsuak izanen dituztela pentsa badezake ere, bakoitzak bere problematika berezia du, Julen Lekuona beratarrak gogorarazten duenez. «Batzuk mugikortasuna dute eta sentibiltaterik ez, bertzeak alderantziz, bertze batzuk ez bata eta ez bertzea, hori da nire kásua». Berak auto istripu baten ondorioz medulan lesio bat izan zuen. Zazpi hila-

bete Toledoko ospitalean igarozuen eta geroztik aulkia-ekin bizitzera ohitu behar izan du.

«Erakundeek gehiago egin beharko lukete»

Etxean nolabait moldatzen dira, gehienek aulki gurpildunari egokituz obrak egin baitituzte. Pakinko Igarzabal lesakarrak etxez aldatu behar izan du eta bere neurrira egin (pasabide zabala, komunean buelta emateko lekua...), baina ez du obra egiteko lagun-tzaririk izan. «Trabak bai, baimenak lortzeko eta...». Julenen etxean ere obra dexente egin behar izan dituzte: «Bigarrenpi-

su batean bizi naiz eta gara-jetik zuzenean igogailua jarri genuen. Autoari ere zenbait moldaketa egin genizkion». Baina etxeko atetik ateratzean hasten dira beraien burukominak. Julenek dioenez, «Bera aulkian ibiltzeko herri zaila da. %8ko maldak baino haundiagoak ezin dira igo eta Bera ez da xelaia. Hor dago Herriko Etxea, eliza, ostatuak, dendak, karriken egoera, zuloak, espaloiak...». Ibardinen, aldiz, arazorik ez dago. «Frantzia eta European, orokorrean, arazo hauek lehenago ikusi dituzte eta askoz aurreratuago daude. Ibardingo bentak horretara egokitu behar

izan dute».

Pakinkoren ustez erakundeak dira laguntza gehien eskaini behar luketenak eta azkenean, guttien egiten dutenak. «Lesakan bertan badira adibide mingarriak: futbol zelaila, joan den urtean estreinatua. Nire betiko ofizioa izan da igandetan Beti Gazte ikustea eta orain ezin dut, harmailetara joateko malda ttiki bat egin beharrean eskaile-
rak paratu dituztelako. Fabrikara doaien errepidetik ikusten ditut orain partiduak, baina zelaiaren buelta guzian pinuak sartu dituzte eta hemendik bizpahiru urtera ez dut deus ikusiko. Baina, ez da

“Etxez etxeko zerbitzua aulki gurpildunean dabilzanei ere zabalik dago”



X Zer egiten da Gizarte Zerbitzuetatik aulki gurpildunean dabilzane pertsonen laguntzeko?

▶ Momentu honetan, autoan eramateko eta normalean de-

bekatuta dauden lekuetan autoa utzi ahal izateko agiriak prestatu ditugu. Batez ere Irun, Iruña edo Donostiara joaten zirenean arazo hori izaten zuten, badaude aparkaleku bereziak baina hemengoek ez zuten beraien ezintasuna frogatzeko agiririk. Udaletxe horiekin harremanetan jarri gara eta ez dute arazorik jarri. Bortzirietan 50 bat lagun ditugu ezintasunen batekin eta gutti batzuek baino ez diote agiri honi probetxua ateratu ahal, baina aukera eman behar diegulakoan gaude. Beraz, denei eskutitz bana bidali diegu.

X Etxebizitza moldatzeko eta izaten da dirulaguntzarik?

▶ Erakundeen eskutik izaten

dira honelako dirulaguntzak. Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate eta Etxebizitza Sailek, Cederna-Garalurrek edo ONCE Fundazioak izaten dituzte honelako subentzioak, baina baldintza batzuk bete behar dira.

X Epe laburrean bertzelako kanpainak egiteko asmorik baduzue?

▶ Aulkian dabilen jendearen tentsatuta, momentu honetan ez dugu bertzerik esku artean, baina eskualdeko Gizarte Zerbitzuen izenean gogorarazi nahi nuke etxeko zerbitzua —normalean adineko jendearen zuzendua dagoela tentsatzen duguna— pertsona hauei ere eskaintzen zaiela.

hori kontua... 100 milioiko aurrekontua duen futbol zelai batean ez dute gure arazoa konpontzeko neurririk hartu, ezta pezeta bat gastatu ere». Burmuin ezinduen futbol txapelketa Lesakan egingen dela jakin zuenean «koleratu nintzen. Herriaren publizitatea egiteko balioko du, baina publizitate txarra... Bakarren bat aulki gurpildunean etorriko dela pentsatzen dut, eta horrek zer egin behar du?». Hor daude, baita ere Plaza Zaharra, «aulkiarekin sartzea ezinezkoa da, izugarritzko eskailerak eta koxkak baitaude» eta liburutegia: «Nik ezin dut liburu bat hartzera joan, Herriko Etxearen hirugarren pisuan dagoelako, baina adineko jendearentzat ere hagit zaila da». Pakinkoren ustez, aintzinako eraikuntza zaharren kasuan ulertzeko da honelako arazoak izatea, baina «Herriko Etxea eta plaza azken hamar urteotan zaharberritu dituzte eta futbol zelaiak joan den urtean egin zuten».

«Gero eta gehiago hartzen gaituzte kontuan»

Julen Iruñeko arkitektura bulego batean ari da lanean eta arazo hauek orain gehiago hartzen direla kontuan uste du. «Obra berriak egiterakoan erakunde publikoak hasi dira ezinduak kontuan hartzen, hipermarkatu haundiek ez dute oztopo arkitektonikorik...». Bere erranetan, «proiektua egiten denean da gauzak ongi egiteko momentua, gero zaila eta garestia suertatzen da». Publikoari zabalduetako lekuetan moldaketak egiten direnean, ezinduei oztopoak kentzera behartuta daude legez, baina Lekuonaren ustez «ez dute legea betetzen eta ez zaie betearazten ere».


Eguneroko bizimodua zaila ez ezik, garestia izaten da beraietzat. «Aulki honek 400.000 pezeta balio du eta hiru urtetik edo aldatu behar duzu, kojina, 90.000 pezeta, sendagaiak... Erreabilitazioa hasieran Osasunbideak ordaintzen du, bi urtez gehienez, baina egoera egonkortzen denean, gero zure kontura egin behar duzu» dio ASPAIN erakundearen kide den Julenek.

Pakinkok erran digunaren arabera, «lagunen eta fami-

liaren laguntza hagit garantzitsua izan da, beti ondoan dituzu eta hori eskertu nahi nuke hemendik». Gizarteak ere, arazoa ulertzen duela uste du. «Ikusten badute, zuk dituzun zailtasunak entenditzen dituzte». Julen iritzi berekoa da, baina erruki begiradetan ere erreparatu du. «Orain gutxi arte, paraplejikoa hemen ez zen etxetik ateratzen eta bizi-itxaropena ere laburragoa zuten. Ateratzen hasi gara eta haurrek eta agurrek begiratzen gaituzte, batez ere».

«Etxetik ateratzeko gero eta gogo guttiago dute»

Pakinko, eritasun hereditario bat dela medio dago aulki gurpildunari lotua. «17-18 urterekin hasi zitzaidan eta pixkan-pixkan gehiagora joaten da. Gorputz guzia indarrik gabe gelditzen da, ez hankak bakarrik, baita besoak ere». Irtenbiderik ez duenez ez du errehabilitaziorik egiten. Gainera ez du inoiz elkarre batean sartzeko asmorik izan. «Lesakan bada bertze neska bat nere kasu berarekin, eta solasten dugu, baina ez dut elkarre batean sartu nahi, beti gauza berari bueltak eman, beti horretaz so-



«Eraikuntza berrietan, protektus igitan denean hartu behar dira kontuan ezinduen arazoak, behin egin da gero moldatzea zaila eta garestia baita»

lastu... nahiago dut nire bizi-modua egin». Astegunez ordenagailuan aritu, irakurri, paseo bat eman eta asteburuetan lagunekin kartetan aritu, tragoxka batzuk hartu... Hori izaten da bere programa, baina azken honetan ere zail-

tasunak ditu, «ostatu gehiengotan eskalak paratu baitituzte sartzeko, bertze batek atea estuegia. Berdin gertatzen da banketxeetan, komertzioetan... Etxetik ateratzeko gero eta gogo guttiago izaten diat». ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.800 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 948 63 11 88
Faxa: 948 63 12 91

Internet:

http://www.jalgi.com/topagunea/ttpi-ttapa

e-mail:

ttpi-ttapa@topagunea.jalgi.com

uzendaria: Aitor Arozena. **Pu-
lizitatea:** Miren Karmele Tolo-
a. **Erredakzioa:** Aitor Arozena,
Asier Gogorza, Joxemanuel Iri-
joien. **Administrazioa:** Amaia
ioia. **Erredakzio taldea:** Pello
pezetxea, Juainas Paul, Bitto-
Telletxea. **Berriemaileak:** Jose-
a Azpiroz, Esteban Arozena,
Juana Mari Saizar, Ainhoa Mu-
berria, Iban Isasi, Patxi Iriarte,
Patxi Otxandorena, Jaione
otxandorena, Alba Fernandez,
Abalo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Franc Dolosor, Margari
txenike, Koro Irazoki, Mixel Ge-
endiain, Jacqueline, Elixabet
urria, Garbiñe Maiz, Oskar
xoperena, Pello Apezetxea, Ai-
or Arozena, Asier Gogorza.

laboratzaileak: EHNE Nafa-
oa, Txema Aldabe, Mikel Bezu-
arte, Joxe Javier Etxeberria...

primategia: Gertu.

tipi-ttapak ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
tukizunik.

arakunde Laguntzaileak: Be-
a, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako Eus-
ara Mankomunitatea, Malerre-
ako Zerbitzu Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
ea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Marihuana landatu eta erretzeko debekua

Ezjakintasuna eta informazio faltak jendearen jokabide itxia areagotzen du

MARI Toldea
Baztan

1998ko apirilaren 13an Baztan-
go Balleko Etxean burutu zen
batzar orokorreko azken pun-
tuan, batzarkide gehientsuenek
azaldu zuten jokabide pasiboak
sortu zigun haserrea aldarrikatu
nahi dugu. Puntu hau, noski,
guri zegokigun lur eremu eska-
rriari buruzkoa zen. Lur komu-
nal honetan, dakizueenez, nor-
beraren kontsumorako bidera-
tuta zegoen kalamu landaketa
burutu behar genuen.

Guk emandako txostenak ez zi-
ren mahaikideen artean banatu-
ak izan, eta beraz, erabateko de-
sinformazioa somatu genuen
bozketa egiterako orduan. Sote-
ro Etxandi Herri Batasunako zi-
negotzia izan zen mahaikideen
artean argudioak azaldu zituen
bakarra, besteek ez baitzuten
inongo interesik azaldu gure ka-
suarekiko. Bozketaren emaitzak
ez gaitu harritu, eta are gutxia-
go, gaur egungo Baztango erre-
alitatea ezagutuz (Tuku-tukuak).
Gure helburu bakarra informa-
zioa, komunikazioa eta eztabai-
da soziala zabaltzea da (maria
"peta" batzuk erretzeaz gain).
Drogen inguruan dagoen infor-
mazio falta eta ezjakintasunak
jendearen jokabide itxia areago-
tzen du, eta oraindik ere "tabu"
bat izaten jarraitzen du.

Arazoa ez dira drogak, hauen erabilera oker eta neurrigabea baizik



Itziar IGUZKIAGIRRE
Giz. Langilea. Iganzi

Droga ezberdinen ekoizpen-salmen-
ta eta erabilerearen kontrako debeku-
a, duela 7 edo 8 urte hamarka-
da hasi zen. Gaur egungo legedi-
ak guziz legez kanpokotzat jo-
tzen ditu marihuana bezalako
drogak, eta bertze sustantziek
berriz, (tabakoa, kafea, alko-
hola...) ez dute inolako debeku-
rik gure gizartean.

Komunikabideek legez kanpo-
ko drogei buruz eman diguten
mezu eta ideia faltsuak hauei bu-
ruzko irudi xebreak eta mozo-
rrotua sorrarazi du gizartean:
"Droga gizarteko eritasunik lar-
riena da".

"Probatzea aski da drogaren zu-
loan erortzeko".

Hala eta guztiz ere, errealitatea
hobeki aztertuz gero "ideia"
hauek batera betetzen dituen
drogarik ez dagoela ikusiko du-
gu, drogak kaltegarri eta adik-
zio sortzaileenak izanda ere. Az-
kenik, honekin batera erran nahi
dudana zera da: drogak bat bai-
no gehiago direla, legalak bar-
ne, eta pertsonengan dituzten
eraginak desberdinak izanda,
erabilera neurriak ere aldatzen
direla. Alegia, arazoa ez direla
drogak, hauen erabilera oker eta
neurrigabea baizik.

Haxixaren erabilera oso normalizatua dago Euskal Herriko gazteriaren artean



Arantxa CEREZO
Askagintza. Lesaka.

Guk nahiago du-
gu normalizazio-
az solastea legali-
zazioaz baino. Ne-
re ustez haxixaren erabilera oso
normalizatua dago Euskal Herri-
ko gazteriaren multzo haundi
batean. Koadrila pila batek erabi-
tzen du haxixa, eta gehienek ez
dute arazorik. Drogen normali-
zazio prozesuan egokia izanen
litzateke haxixarekin haxixa, sek-
tore haundi batean normaliza-
tua dagoela kontutan hartuta.
Oso bitxia da haxixaren inguru-
an ematen den hipokresia. Alde
batetik legez ziurtatzen da nor-
beraren kontsumorako eduki-
tzen ahal dela hainbertzeko kan-
titatea, hori legalizatuta dago.
Baina beste aldetik, haxixa erosi
nahi badut "trapitxeko" ilegal
bat egin beharrean nago, eta lan-
datzen badut ere legea hausten
dut, Baztango kasuarekin ikusi
den bezala.

Gure gurasoen artean, bertzal-
de, oraindik oso zabaldua da-
go "eskaladaren teoria" deitzen
dena, hau da, haxixarekin has-
ten zara eta heroinarekin buka-
tuko duzu. Kristoren beldurrak
daude oraindik. Horregatik
eman behar da heziketa proze-
su bat. Gizarteari utzi behar zaio
drogen inguruan eztabaidatzen.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik asteazkenera 9etatik 13etara eta 16etatik 20etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketa

Ibon IRAZOKI (Berako Betso Eskola)

Neurria: Zortziko Houndio

Maiatzak zazpi Bera herrian honetaz nago seguru Berriozarren hogeita batin kantatzea da helburu Tafalla, Leitza ta Elizondo bertsoz beteko ditugu Nafarroako eskolarteko bertso txapelketa dugu.

Eskolarteko gure bertsoak ezin dira inoiz saldu plazarik plaza behar ditugu mundu osoan zabaldu gu entzutera etor zaitezte kristoren kasta daukagu Nafarro zaharrak bertsoalaritzan kriston etorkizuna du.

ttipi-ttapa

Ameriketara

bidaltzea erdi prezioan gure bitartez

Franko Kontzertatari esker, aldizkaria gahi bidali ezara, zuk bidaltza baino erdi prezioa kostako zaku.

Iparraldetik deitzeko 19:34 Heguldetik deitzeko 948631188

IRAKURLEAK MINTZO

BIAT (Bortzirietako Intsumisioaren Aldeko Taldea):

Orain dela urte pare bat intsumisio mugimendua bizi-bizi zegoen Bortzirietan. Orduko kode penala zela-eta, bertako hainbat gazte intsumisio atxilotueta gartzelaratu zituzten. Honek gure inguruko jendearen intsumisioarekiko sentsibilizazioa ekarri zuen, hainbat gazte eta guraso mobilizatu zen. Orduz geroztik estatuak hartutako jarraera intsumisio mugimendua isileraztean oinarritu da. Hortarako kode penala eraberritu zuten, eta gaur egun bizi dugun egoera horren ondorio zuzena da. Estatuak intsumisioaren itxurazko "despenalizazioa" bultzatzen du kode penal honekin, baina egiazki jendearen intsumisioarekiko interesa jeistea bilatzen du, horrela gizartearen presio handi bat kentzen duela-ko gainetik.

Jarrera honek bere fruitua eman dio leku aunitzetan, eta gure inguruan dugu adibiderik garbiena: gaur egun gehienok ez-jakinak gara kode penal berriari dagokionean, intsumisioa despenalizatua dagoelaren irudia dugu burutan; orain intsumisio egin diren lagunak ez dituzte lehen bezala kartzelara eramaten, egun batean epaitu eta gero libre gelditzen direla iduritzen zaigu, hain zuzen, "inhabilitazio" edo gaitasungabetzeak zer suposatzen duen ez dakigulako. Bortzirietako hainbat gazte epai-kereta bakarrik agertu izan da, eta beren inguruko jendea soilik enteratu da.

Egoera lotsagarri honen aitzinean lagun batzuk elkartu gara, gai honen inguruan dagoen ez-jakintasuna uxatu eta intsumisioaren alde lan egiteko. Gazteok bizi dugun egoera kaxkar honen inguruan jendea sentsibilizatu eta konponbide baketsu eta duin baten alde lan egiteko asmoa dugu.

BIAT,
BORTZIRIETAKO
INTSUMISIOAREN
ALDEKO TALDEA

Labaiengo gutun anonimoak:

Orain dela egun gutxi aurkitu genuen herriko pertsona batzuk gutun anonimoak bidali zizkieten herriko bizilagun desberdinei. Hauetan, mintzaera zakarrrez, (hau badakigu irakurtzeko aukera izan dugulako), erakutsi nahi zuten alkate eta bere inguruko jende batzuegan zuten gorrotoa.

Gutunean jartzen zuen guztiak ez zeukan zentzurik eta irri egiteko gogoia eman zigun. Ziur gaude gutuna irakurri duen jende gehiena gurekin ados dagoela, eta hemendik gure laguntza bidali nahi diegu burla egin dieten alkate eta bertze pertsoneri.

Idatzi duten pertsona horiek ezin dira pozik bizi horrelako gauzetan denbora galtzen baitute. Penagarria da Labaien bezalako herri polit batean horrelako jende desatsegina eta maltzurra izatea.

LABAIENGO PERTSONA BATZUK



OHARRA:

*Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 terro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Inbidia edo errespeto falta:

Gaur egun oso normala da gure inguru honetan, kalean dagoen edozein pertsonari pilotari buruz hitzegiten entzutea. Bai aurreko asteburuan ikusitako partiduari buruz edo gungandik oso huril bizi diren pilotari egin zituzten partiduei buruz. Baina toki guztietan bezala, badira pertsona batzuk, partiduarik komentatu beharrean pilotariak kritikatu egiten dituztenak.

Azkeneko egun hauetan aho guztietan dabilen izena Mikel Goñi da. Baina ez egin dituen partiduarik komentatzen dituztelako, baizik eta bere bizitza pribatuan sartu egiten direlako. Egia esateko, entzuten diren komentarioak oso intentsio txarrenekin egindakoak dira, zeren eta berarekin erlazioaturik dauden beste pertsona batzuk inplikatu egiten dituzte, inolako arrazoirik gabe. Modu honetan pertsona horien sentimenduak eta baita Mikel Goñirenak aldi berean mintzea lortzen dute.

Baina komentario horiek nork esan dituen aztertzen hasten garenean inork ez daki zeinek esan duen, beraz, inork ez daki benetan egia ala gezurrak diren. Inork ez badaki benetan egia den, zergatik sartzen dira horrenbeste besteen bizietan? Ez al da inbidia txar hori izanen?

Dena den, ordua da norbaitek mota honetako jendea ixiltzea edo gezurtatzea. Modu honetan, bakarrik mina eta gorrotoa sortu egiten baitute, zeren buru pixka bat daukan pertsona batek ez luke mota horretako gezurrik sinistuko eta ezta esango ere. Ez al dugu denek errespeto pixka bat merezi?

44634698-R



 **Patxi URRUTIA** Amaiurtarra

Baztango Junta Generala eta maria



Notizia gara berriz ere. Baztango berriak paper guzietan ageri dira. Mari taldeak lur komunala es-

katu zion Junta Generalari lur hortan kalamu plantazio bat egiteko. Juntak ukatu du, eta lurrik gabe gelditu dira Mari taldekoak. Kalamua fumatzen den belar bat berterik ez da. Horren erretzeak egiten dituen kalteak tabakoarenak edo edariarenak bainon aise tikiagoak dira. Horri buruz egin diren ikerketa lanek horrela diote. Horren erretzea normala da, edo normala bihurtzen ari da. Karrikan ikusten dugu, bai usaindu ere. Badaude taldeak gai honen inguruan dagoen hipokresia zokoratu nahi dutenak. Altxapeka landatzeko modua aurkituko zuten Mari taldekoek, baina tranparik gabe eta aurpegia emanez dabilta. Normalak diren gauzak normalizatu egin behar direlako.

Kalamua landatzea legezkoa da, zenbait lekutan segurik. Joan den urtean Bizkaia aldean, Kalamudia deitzen den talde batekoek holako landaketa bat egin genuen. Biharamunean fiskalarengana hurbildu ginen berari gure lanaren berri emateko. Ez zen deus pastu eta gure uzta bildu genuen urrian. Zenbat lekutan legezkoa bada, osasunari kalterik egiten ez badu, zertaz lurra ukatu Mari taldeari? Egunkariek diotenez inork ez zuen azalpe-

nik eman ezezko botoa argitzeko. Hau bai penagarria! Arrazoiak bazituzten, zertaz ez argitaratu? Seguru aski kalamuaren ondoan aunitzek "droga" hitza erabiltzen dutela eta izitu izanen ziren. Baina tabakoa ez al da droga? Eta gure lurretan landatzen zen, eta Udalean erretzen da, eta osasunarentzat arras kaltegarria da. Irakurri izan dut Ameriketatik etortzen zirenean, handik bueltatutako lehenak pueroak ahoan ekartzen zituztela eta ekea ahotik botatzen

Altxapeka edo gordean landatzeko modua aurkituko zuten Mari taldekoek, baina tranparik gabe eta aurpegia emanez dabilta. Normalak diren gauzak normalizatu egin behar direlako.

zutela. Horrelakorik hemen ez zen ezagutzen eta bereuntako jendeak pentsatzen zuten deabruak hartuta zeudela, eta behin baino gehiagotan harrikatu zituzten puro erretzaileak.

Gauza berriak, ohitura berriak, beti halako kezka edo urduritasun bat sortzen du gure barnean. Bainan gaur, guk dakiguna eta ikasi duguna jakin eta ikusi ondoren, nola gauza berri bati ertsiko diozkagu atea arrazoirik eman gabe? Gaurkoan ezin dugu gure herriko talde bat harrikatu.

 **Oskar GOÑI** Beratarra

"Todo por la patria" Herri Batasunaren aurka



Zuzenbidean ezjakina izan arren, beti pentsatu izan dut legea gizakiaren eskubideak zaintzeko

egina dela, eta legea beteazteko Estatuak antolatzen duen mekanismo guztiak ere, bere lana legeari zordioten begirunez bete behar dutela.

Gure sasi-demokrazian agintari lanetan dihardutenek zuzenbidearen oinarriak nik baino hamaika aldiz hobe ezagutu arren, estatuaren segurtasunaz arduratzen diren gortuz militarrek delinkuente bihurtzea onartzen dute. Eta behin ustezko delitua prentsan agertzen denean Espainiako Lehen Ministro Jaunak parlamentuaren aitzinean delinkuentziaren apologia egiten du. Benetan lotsagarria. Baina PPko agintariei ez

zaio hori axola. Denak bali du Espainol nazionalismoaren aitzinean altxatzen den disidentziaren aurka. Bagenekien ETaren aurka gerra zikina eta zuzenbidezkoak ez diren hainbat neurri aplikatzen zutela (bahiketak, torturak, hilketak, Lege Antiterrorista, e.a...) baina Partido Popularreko Gobernuak urrutia go joan nahi du. Lehenik Herri Batasunaren Mahai Nazionala kartzeleratzean; legearen trikimailu guztiak erabiliz, azken finean eta euren nahi duten delitoez ize nez deituko dute, baina, bide bat zabaltzeagatik. Eta orain legalizatuta dagoen al-

derdi politikoa ilegalki espiatzean. Edozein Estatu Demokratikoan agintari gorenak dimititzeko adinako eskandalua izango zena Madrilen justifikatzen, babes ten eta ia-ia txalotzen dute. Honek garbi erakusten du PP, orain arte erakunde armatu klandestinoaz jartzeko erabiltzen zituen metodoak alderdi politikoa legalizatu baten aurka erabiltzeko prest dagoela. Oraindik ere Estatu Demokratikoan bizi garela uste duenik balego, mesedez erantzuna idatz beza eskatzen

Oraindik ere Estatu Demokratikoan bizi garela uste duenik balego, mesedez erantzuna idatz beza eskatzen diot, komunikabide espainoletatik kaka hau zuritzeko bidaltzen didaten pintura oldea ez zait aski eta.

diot, komunikabide espainoletatik kaka hau zuritzeko bidaltzen didaten pintura oldea ez zait aski eta. Herriak irtenbide baketsuaren gosea azaltzen duen honetan, Gobernuak irtenbidea bilatzen baino, errudunak bilatzen denbora galtzen du, bitartean bere burua gatazkaren luzapenaren errudun nagusia bilakaturik. Hau ez da garaile eta garaituen arteko joko makabroa. Hau gure herriaren bizimodu baldintzatzen duen arazo da. Eta arazo hori ez da bake eta askatasun nahiari bizkar emanez konponduko.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 98ko apirilaren 22a

«Anaitasuna eskubaloi taldearen entrenatzailea izatea erronka garrantzitsua eta akaso, zail xamarra da neretzat, baina aldi berean ez da normala kanpoko entrenatzaileak honat etortzea».

«Ekonomia gustatzen zait, zientzia bat delakoz baina ez zehatza. Zerbakiekin lan egiten da, baina ez abstraktoki eta bi eta bi ez dira beti lau izaten».

Nora ENETERREAGA
Gerentea Bertizko Partzuergo Turistikoa.

Diario de Noticias 98-IV-24

Juanto APEZETXEA

Doneztebarra.

Diario de Noticias 98-IV-22

❖ **Alkatesa izango bazina...**

❖ Gazteentzako mugimendua gehiago landuko nuke.

❖ **Ostatuko giroa ala Udaletxekoa?**

❖ Ostatukoa.

❖ **Zuzenean ikusiko zenukeen musika talde bat?**

❖ Rolling Stones.

❖ **Amodioa sexuarekin edo sexua amodiorik gabe?**

❖ Egoeraren arabera.

❖ **Uda honetarako plan bat?**

❖ Uda honetarako dudan plana lan egitea da baina ahal izanez gero Mexikora bidai bat egingo nuke.

❖ **Gustoko duzun aktore/aktorea bat?**

❖ Anthony Hopkins.

❖ **Ikusi duzun azken filmea?**

❖ El Indomable Will Hunting.

❖ **Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?**

❖ Urtarrilean.

❖ **Herrietako giroa ala hirietakoa?**

❖ Herrietakoa!!!

❖ **Sunbillako txokorik politena?**

❖ Sunbillako txoko guztiak politikak dira.

❖ **Maiz izaten duzun amets bat?**

❖ Oso sakon egiten dut lo eta ez naiz oroitzen nere ametsetaz.



Pilar KORTA

Tabernaria eta Sunbillako Herriko Etxeko zinegotzia



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948451841 / 908778653

e-mail: ados@iname.com

Parrokia, 5-2.ezk • DONEZTEBE



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

Edozein motako aseguruak egiten ditugu

BAZTAN-BIDASOA.

- Borda eta baserri batzuk salmentan.

BERA.

- Pisu bat, Kanttonberri karrikan, erabat guzkitsua.

- Pisu bat, Berako sarreran, gasolindegiko ondoan, baratzea badu.

- Pisu bat, Legian. Oso zaindua. Aukera.

- 150 m²ko bajera kuadrato bat errentan emateko Kanttonberrin.

- Eguzki ostatu osoa salgai.

- Etxe jauregi bat salgai.

- Etxetxo berria salgai bere lur eremuarekin.

LESAKA.

- Azken etxe elkar atxikia, 199 m², Transibar-din gainean.

IGANTZI.

- Pisu berri bat salgai, bajerarekin edo hutsa. Larri, prezio onean uzteko prest.

ARANTZA.

- Etxetxo bat salgai, erreformatzeko.

SUNBILLA.

- Terrenotxo bat, etxea egiteko egokia, salgai

DONEZTEBE.

- Azken partzela, etxea egiteko aukerarekin, salgai, 2.000 m²koa.

- Babes Ofizialeko azken azken pisua salgai, Amezitia ostatu ondoan.

- Amezitia ostatu ondoan, bajerak, lokal komertzialak eta garajeak salgai. Aukera ona.

- Joxepa etxe osoa salgai.

- Bajera batzuk salgai, herrian.

- Pisu batzuk errentan emateko.

ELGORRIAGA.

- 200 m²ko bajera errentan emateko.

- Pisu eder bat bere sotoarekin salgai.

- Pisu bat, garaje eta ganbararekin, salgai.

ITUREN.

- Etxe handi bat bere baratzearekin salgai.

- Pisuak salgai, berri-berriak, Lasaga auzoan, aukera ona, bajerarekin edo hutsak.

- Bajera berriak salgai.

ZUBIETA.

- Etxe haundia, pisu batekin egina, salgai.

EZKURRA

- Etxe bat salgai.

LEITZA.

- Pisu batzuk salgai.

LEKUNBERRI.

- Etxe zoragarri bat salgai.

- Pisu bat salgai, oso interesgarria da.

- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.

DONAMARIA.

- Etxe dotorea, Donamariako Bentetan, salgai.

- Borda bat errentan emateko.

OITZ.

- Etxe bat salgai, sartzeko prest, larri.

- Belagi bat, 10.000 m²koa, salgai.

URROTZ.

- Baserri bat salgai.

BEINTZA-LABAIEN.

- Etxe bat, bere terreno guzietan, salgai.

LEGASA.

- Pisu salgai, bere bajerarekin, Iturrialdean.

- Lur eremu bat, etxea egiteko proposa, El Rio ostatu ondoan, salgai.

- Pisu bat, arras merkea, salgai.

NARBARTE.

- Pisu salgai, ekonomikoa.

MUGAIRI.

- Pisu eguzkitsua, salgai, ganbararekin.

- 60 m²ko bajera bat salgai, Ongi-etorri ostatuaren ondoan, 'MRW' izan zena.

IRURITA.

- Pisu errentan ematen da.

ELIZONDO.

- Pisu bat, Braulio Iriarte karrikan, arras polita eta merkea, salgai.

ERRATZU.

- Etxetxo bat salgai.

HENDAIA.

- Apartamentuak eta estudioak salgai.

Telefono publikoak jartzeko dirulaguntza deialdia luzatu zaie udal erakundeei

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak aurten telefono publikoak jartzeko dirulaguntza deialdia zabaldu die udal erakundeei. Honela ageri da Jose Ignacio Palacios kontseilariak sinatutako Foru Agindu batean.

Deialdi honen helburua, telefono publiko zerbitzurik eskaintzen ez duten herrietan telefonoa jartzea izanen litzateke, erabilpen sozialekoa dela iruditzen baitzaio Gobernuari.

Dirulaguntza hauek 2 milioi pezeta bideratuko dira Iruñetik eta kabina jartzea kostatzen dena ordaintzeko emanen da, ez mantentzeko edo moldaketarako. Konkretuki, instalazioaren %100 ordainduko da, eskaera bakoitzeko 150.000 pezeta gehienez. Eskerak azaroaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduaren Erregistroan.



Maiatzaren 24rako gonbitea luzatu zuten UEMAko kideek.

Euskaraz bizi diren herrien besta Arantzan egingen da

Donostian aurkeztu zuten aurtengo UEMA Eguna

TTIPI-TTAPA

Joan den apirilaren 23an aurkeztu zuten aurtengo UEMA Eguna Donostiako Koldo Mitxelena aretoan. Patri Arburua euskara teknikaria, Nora Eneterreaga Bertizko Partzuergoko gerentea, Xabier Zugarramurdi Arantzako Udaleko zinegotzia eta UEMAko teknikari Iñaki Arregi aritu ziren besta egun horretako go-

rabeheretaz solasean. «Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan» da aukeratu duten lema. Hego eta Ipar Euskal Herriko hainbat auzapezek manifestu bat sinatuko dute helburu horren alde. «Udaletxeak eta alkateak euskararen normalizazioan protagonista bilakatu nahi dira» adierazi zuten Arregik.

UEMAren prentsaurrekoan suertatu zen be-

rikuntzarik nabarmena Bertizko Partzuergoaren partehartzea izan du zen. Partzuergoak gure hizkuntzari duen garrantzia emateko konpromezu tinkoa hartu du, bi aldeek sinatu akordioaren arabera. Patri Arburuak, azkenik, Bortziritako euskararen egoera isladatzen duten datuak eman zituen. Haren erranetan, biztanleen %77a mintzartzen da ongi euskaraz.

Bertiz-Bera ibilbidea autobusean antolatu du Ingurugiro Sailak

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Departamenduak, arlo honetan Nafarroak duen ekipamendua eta burutzen ari diren lanak erakutsi asmoz egiten ari den ingurugiro ibilaldien barnean, Bertizetik Berara joateko aukera emanen du maiatzaren 9 eta 30ean. Autobus bidai hauek, Nafarroako naturgune babestuen eta arrantzen kudeaketa erakutsi nahi dira. Horretarako, Bertizko Jaurerriko Parkea, Berako Ehizi eta Arrantza Elkarte eta Bidasoa erreka izoki arrantza lekuak bisitatuko dira.

Autobusak goizeko 9etan abiatzen dira Iruñeko Tres Reyes hoteletik eta arratsaldeko 7etan itzuliko dira. Interesatuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Club 10eko informazio telefonora deitu behar dute (901 500 500). Klub honetako bazkideek 1.000 pezeta eta bazkide ez direnek 1.800 pezeta ordaindu beharko dute (autobusa, gidaria eta bazkaria prezioaren barnean dira).

Azalea
Loredenda

- Kotxe eta elizaren dekorazioa
- Andregai-erramuak
- Gonbidatuendako oparitxoak

Loregintzan diplomaturia

Altzate 26 • © 948 631 121 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Errekalde ostaturia
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 948630259 - BERA

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

Hamabostero
ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6
© 948631403 • BERA

Mendian barna ibiltzea debekatu eginen zaie zenbait ibilgailuri

Udalak lege aurreproiektu bat prestatu du hori lortzeko

ASIER GOGORZA

Nafarroako Gobernuari igorri dion lege aurreproiektu baten arabera, ibilgailuak Berako pistetan barna ibiltzea debekatu nahi du udalak. Herritarrek, halere, orain arte bezala ibiltzen segitzeko aukera izanen dutela erran digu alkateak. Udal Zerga ordaintzearekin batera, izan ere, txarteltxo bat banatuko baita, eta eltzetziek-edo mendian gelditu ezkeror hori erakustearekin aski izanen zen.



Toki-Ona Institutuko hiru ikasle sarituak

Hiru ikasle hauek Europan zehar bidaiatu eta hizkuntz-ikastaroak egiteko aukera izanen dute uztaillean. Nafarroako Gobernuak eskol-curriculumik hoberena dutenen artean urtero banatzen ditu 150.000 ptako sariak, eta aurtuen Naiara Maia, Yolanda Rodriguez eta Gorka Agirre suertatu dira irabazle. Naiara Irlandara joanen da, Gorka Ingalaterrara eta Yolanda Frantziara.

INTSUMISO EPAITUA

Txomin Etxeberria intsumitu beratarra epaitu zuten apirilaren 23an Iruñean. Deklaratu ondotik libre utzi zuten eta epaiaren zain dago orain.

ADIO NOISE HOLE

Talde beratarrek bere azken kontzertua eskaini zuen Puin joan den

apirilaren 30ean. Agur eta mila esker.

ZINEGOTZI BERRIA

Isabel Pardok hartu ditu Patxi Alzuguren zinegotziak Udalean betetzen zituen ardurak.

Cano eta Sarriegiren olerki-bertsoak bihar entzungai

Liburuaren Eguna duela denbora gutti izandu dela eta, literatura eta bertsolaritza modu berexian uztartzen dituen emanaldia antolatu du Gure Txokoa elkarteak ortziral honetarako, hilak 8. Bi hitzetan laburtuz, horrelako zerbait izanen da Harkaitz Cano idazleak eta Aitor Sarriegi bertsolariak eskainiko duten emankizuna: Canok zenbait testu aukera-

tu eta jendearen aitzinean leituko ditu (olerkiak edo bertze gisako testuak izan daitezke), eta ondoren, Harkaitzek irakurritakoak gogora ekartzen dionarekin, bat-bateko bertsoak botako ditu Sarriegik.

Bi gipuzkoarren literatura-josteta hau lamotenea elkartearen izanen da entzungai, bihar, arratseko 8,30etan.

«Liburutegia ez da eskolako lanak egiteko bakarrik, denborapasarako ere baita»

Orreaga Urbiola du izena Berako liburutegian lan egiten duen iruindarrak. Berriki Liburuaren Eguna izandu dela-eta, gure herriko irakurketa ohiturei buruz aritu gara hizketan. Orreagak dioenez, «behar baino askoz ere eskasagoa» da irakurtzeko usadioa. Bere ustez etxean sortzen da irakurtzeko zaletasuna, «gurasoek irakurtzen badute, haurrek ere bai». Eskolak ere nolabaiteko lana egiten du, baina ez omen dira sobera bateragarriak eskola eta liburuak, «han liburu hau eta hau irakurtzera behartzen zaielako». Bertzalde, liburutegia gehien erabiltzen dutenak eskola-umeak omen dira diferentziarekin, helduak sartu, liburu hartu eta joan egiten baitira normalki. «Liburutegiak ez dira etxeko lanak egiteko bakarrik, denborapasarako ere bai» kexu agertu da Orreaga. Batez ere eleberri edo nobelak irakurtzen omen ditu Berako jendeak, eta guttien eskatzen direnak, berriz, erlijio eta filosofia liburuak.



Orreaga URBIOLA

Jabier Muguruza hilaren 15ean Kultur Etxean

Jabier Muguruza kantari eta idazleak zenbait testu irakurri eta abestuko ditu heldu den astean Kultur Etxean. Berako Liburutegiak eta Lamixine Antzerki Taldeak antolatu dute saioa, eta azken hauek

Muguruzaren emankizunetan parte hartuko dute zuzenki. Izan ere, Liburutegian hasi eta goitiko gela haundian akautuko den ibilbidea eginen dute ikusleek, eta antzerkikoak gidari lanetan ariko dira.

LABE ZAR
© 948631076 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

Xingil
cleapadudegia
© 948631462 • Altzate I • BERA


Herriko kainoiak Irun eta Hondarribiako Alarde 'Tradizionaletan' aterako dira

PNVren aldeko botuekin hartutako erabakiak zer erran ugari sortu du

AITOR AROZENA

Irun eta Hondarribiako Udalek beraien kainoiak eta kantinera soinekoak ukatu zizkieten Alarde 'Tradizionalaren' aldekoiei —emakumeak kantinera bezala bakarrik onartzen dituztenak—, Epaitegiek emandako erabakiak segituz. Ukazio honen ondotik, Lesakako Herriko Etxearengana jo zuten *tradizionalistek* eta elizarako bidean dauden kainoiak eskatu zizkieten. Udalak eskari hau onartu zuen azken batzarrean, PNVren aldeko botuarekin eta EA eta HBren kontrakoarekin. Alkateak erran zuenez, «*lehen ere utzi egin zaie eta ez dugu orain ez uzteko arrazoirik ikusten*». HBk, lehen Alarde Ofizialari uzten zitzaiola gogoratu ondotik, «*emakumeak diskriminatzen dituen Alardeari deus ez uztea*» eskatu zuen. EAK ere bere ezadostaduna erakutsi zuen, eta kainoiak eskatu dituen taldearen legaltasunari buruzko zalantzak azaldu zituen.

Kainoiak uztearen alde hartutako erabakiak zer erranik sortu Hondarribia nahiz Irunen, jakina denez, gai eztabaidatsua baita.



Lehen txapela herriratu du sokatira taldeak

Apirilaren 26an Urretxun burututako Euskal Herriko sokatira txapelketaren lehen finalean, 560 kilotik behitikoan, urteko lehen txapela eskuratu zuen Beti Gazte taldeak. Tiraldi guziak irabazi zituzten eta asteburu honetan jokatzekoak ziren bertze finalerako animoz beteak ageri ziren tiralariak. Akaso hau leitzerakoan bertze txapelen baten jabe izanen dira, pisu arinetan behinpein ederki ari baitira lesakarrak.

Arg.: Aitor

Sanferminak iragartzeko kartel eta programa-azal lehiaketa zabaldu du Herriko Etxeak

Maiatzaren 22a arte zabalik dago aurten-go Sanferminak iragarriko dituzten kartela eta programaren azal lehiaketan parte hartzeko epea. Kartelak 50x40 zm izanen dituzte, 1,5 zm.ko ertza utziz. Azalak, berriz, 25x20 zm. izanen dituzte, 2,5 zm.ko bazte-

rrean eta irudia edo argazkia barrenean. 'Lesaka. 1998ko Sanferminak' agertu beharko da derrigorrez. Lehiaketa Lesakan jaito edo bizi direnei zabaldua dago eta sariei dago kienez, karteletan lehenbizikoak 35.000 pezeta eskuratuko ditu eta bigarrenak 25.000

pezeta. Azaletan, lehen saria berdina izanen da, baina bigarrena 15.000 pezetakoa. Programaren azalean lehen saria eta gibeiko aldean bigarren saria argitaratuko dira, baina barnean bertze lanak sartzen ahal dira. Karteletan lehen saria bakarrik argitaratuko da.

Lanen aurkezpena, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabili egingen da.

flash

Txomineia Ostatua

herriko ostatu historikoetako bat itxi dute. Ehiztarien bilgune, ortziral arratsetako muszaleen jostetaleku, igande eguerdiko txikiteoan etxeko patata prexistu goxoak probatzeko tokia... eta bertze hainbat gauza izan den ostatua arropadenda bezala zabalduko omen dute.

Mus txapelketa Koxkillan

Koxkilla ostatuak Txominearen txanda hartu du ortziral gaueko mus txapelketak antolatzeko orduan. Gaueko Herrietatik aitzinera jokatu ko dira ortziralerok —besta eguna baldin bada, ortzegunetan—.

Mugimendua asteburuan

Maiatzeko lehen asteburu luze honetan mugimendu ugari izan da herrian. Ortziralean Gazte Eguna eta jubilatuen araututako martxa. Igandean Euskal Jaia eta Amaren Eguneko afaria. Hiru kinta ezberdinetako gazteek beraien bazkari eta afariak egin dituzte.

Lurrindenda
Marian
endiberri
Estetika
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • © 948637944
LESKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • **LESKA**

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 **LESKA**

'Usoa' Nekazari Kooperatibak urteko batzarra egin du

Bilguran jende gehiago eta sozioak ere ugaritu dira

PELLO APEZETXEA

23 lagun bildu ziren, apirilaren 19an, Kooperatibaren urteko bilgura nagusian. Bazkal ordurako bertze 13 gehiago. Juntan bazkide berriak sartu dira: Gerardo Danboriena, Manuel Aranburu, M^a Asun Olagarai eta Jose Luis Iparagirre. Urtean saldu-tako pentsua 2.142.415 kilotara ailegatu da, ia aintzineko urtean bezala, baina duela bi urte baino 300.000 kilo gehiago. Zokorra da gehien saldu-takoa: 557.000 kilo, zerriena 257.000 kilo, eta behiena 235.000. Bertze gauzatatik, ardoa da aipagarria, 22.000 litro saldu baitira. Salmenta guziaz, 78 milioi eta erdikoa izan da. Bazkideak ugaritzen doaz, 10 gehiago sartu dira iaz. Prezioak ahalik eta justu-



Ipuin Topaketarako gonbidapenak banatu dira

Etxalarren jaio edo bizi direnen haurren arteko Ipuin Topaketarako idazkiak maiatzaren 15erako bilduko dira, nahiz eta egunen bat edo bertze beranduago ere onartuko diren. Dagoeneko hamaikagarren urtez antolatzen den topaketa hau, ekainean burutuko da, Haurren Eguna deitzen den egunean, beti bezala.

tuenak paratzen direlako, irabazirik ez da izan oraingoan. Hala ere, obra egiteko asmoa dute, errepede aldetik sarrerara berria, burdindegiko gaineko solairua

hobeki probexteko. Arkupeak elkarteko Eguna

Aurten bertze urteetan baino goizago izan da Etxalarren, Arkupeak Elkarteko Eguna; lehen

maiatzaren erdialdera bezala, aurten apirilaren 19an egin baitute. Mezan eta bazkarian bildu, eta arratsaldearen gehiena elkarrekin egin zuten.

flash

Baserritarako zenbait bideri

zola berria emanen zaie. Xeheki, Martoneko Borda, Mariskineko Borda, Olako Borda eta Oiarburua daramaten bide zatiei, 1.730 metro bide, denetara. Kostua, 6 milioi pezetakoa, Herriak eta baserriek ordainduko dute: 1.815.000 baserriek, eta Udalak gainetako.

Aste Santuko turistak

125 kanpotar egon dira Landa-etxeetan. Erdiek aste osoa egin dute, bertze erdiek 3-4 egun. Toki aunitzetatik etorri dira, Iruñetik jende gehiena. Berezia bezala, 7 laguneko familia inglesak 8 egun egin ditu. Etxe guzietan ibili da jendea, eta eskaerak aunitz gehiago izan dira. Jatetxe eta ostaluetan ere jende ugari ibili da, jantokiak betetzeko haina, ortzegunetik igande artean.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ZALAIN
J A T E T X E A
Zalain Auzoa
© 948631106
BERA
EGUNEN MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 948630735 • IRUN © 943622305

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK
Paregabeko idi-txuletak
Deitu erreserbak egiteko
Foto Goiko
Otsango auzoa, Tfnoak: 948627503/948627519 • **LESAKA**

LEGARREA
Legarrea, 9 • © 948 637 030 • **LESAKA**
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264

IGANTZI

Aurten Igantzin bilduko dira nekazariak urteko besta ospatzera

Piszinaren ostatua hartzeko izen ematea, maiatzaren 15a bitartean

OSKAR TXOPERENA

Urte batzuk joan dira Arantza eta Igantziko nekazariak San Isidro Eguna elkarrekin ospatzen hasi zirenetik, eta ohitura bihurtu dela erraten ahal dugu. Herri batera edo bertzera txandaka mugitzen dira, aurtengoa Igantziri egokitu zaiolarik. Maiatzaren 15ean, eguerdiko ordu batetan, meza entzunez hasiko dute bilkura eta biak aldera izanen dute bazkaria. Bazkarira joan nahi izanez gero, herri bakoitzeko NAKren bulegoetan eman beharko da izena hilaren 10a baino lehen, 3.400 pezeta ordainduz. Zer pentsatua ere ematen digu ospakizun honek, nekazari-tza, denbora batean herritar gehienetan lanbidea izatetik, gutti batzurenaz izatera pasatu baita.



Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia datorren urtean

Heldu den urtean zonalde honetara hurbilduko omen da berriz ere Euskadiko Txirrindulari Itzulia. Piedadarako errepidea moldatu ondotik, ez litzateke itsusia izanen bertatik pasatzen ikustea. Argazkian, lehengo egunean Berako proban parte hartu zuten gazteak.

Argazkia: Oskar

Europar sartzeak moldatu behar zituen arazo guztiak, baina, herriotan gutti izan dira etorri diren aldaketetara egokitu ahal izan direnak.

Piszinaren kudeaketa

Apirilaren 28an egindako bilkuran, uda par-

tean piszinako ostatua eta aldagelak zaintzeko izen ematearen epea ireki zuten zinegotziek. Lana bere gain hartu nahi dutenentzat, maiatzaren 15a izanen da izena emateko eta eskeintza egiteko azken eguna. Piszina eta bere inguruetan zainketa herriko sei

objetoreek egingen dute. Ezin erran gabe utzi, bertalalde, azken hamar urteotan Juanjoren gidaritzarik gabe egiten lehen udalbatza zela aipatu duguna. Gaixo dago alkatea, eta hemendik ere, lehenbailen bere zereginetara itzultzea espero dugu.

flash

Mus txapelketa

Jose Javier Urtxegi eta Felipe Lizardik irabazi zuten Igantzi jatetxean antolatutako mus txapelketa. Sarirako zeuden bi telebistak etxera eramateko, Faustino Taberna eta Iñaki Lizarrondori irabazi behar izan zieten.

Konfirmazioak

Maiatzaren 17an hartuko dute sendotza sakramentua herriko 11 gaztek, eta Aralarreko San Miguel, berriz, maiatzaren 18an goizeko 9,30etan ailegatuko zaigu herrira urteroko bisitan.

Biltokioen ateraldiak

Bi ateraldi antolatu ditu Biltoki elkarteak maiatzean egiteko. Bata, Goizuetara 16an egingen dena (hau dagoeneko ohitura bihurtzen ari da), eta bertzea, Arantzara UEMA Eguna dela eta 24an egingen dena.

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERBIZTUN S.L.
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 635290 **ETXALAR**

Toldos BAZTAN, S.L.
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIURUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Piszina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

TOLDOS BAZTAN S.L.
 Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)
 Tel. 948. 63 10 03
 Mug.: 929 01 59 23

Bortzirietan
107.2
FM

KORPORATIBO A.P.P.A.T.I.A
 Tel.: 581226
 Faxa: 452453

ARANTZA

UEMA Egunean dena prest egoteko lanean ari dira elkarteak

Maiatzaren 15a arte erosi ahal izanen dira bazkarirako txartelak

ELIXABET ETA GARBIÑE

UEMA Eguna gero eta hurbilago dago eta dena prest-prest izateko herriko elkarte ezberdinak jadanik lanean ari dira. Apirilaren 24an aurkeztu zen publikoki programa Donostian. Komunikabideen aitzinean egindako agerraldian, Xabi Zugarramurdi zinegotzia eta Patri Arburua, Bortzirietako Euskara teknikaria izan ziren, Nora Eneterreaga, Bertizko Partzuergo Turistikoko gerentarekin batera.

Bertzalde, egun horretan ospatuko den herri bazkarirako txartelak jadanik salgai daude Herriko Etxean. Txartel horiek 2.000 pezeta balio dute helduentzako eta 1.500 pezeta haurrentzako. Maiatzaren 15a arte erosten ahal dira.



UEMA Egunean pilotalekuan eginen den bazkarirako txartelak salgai daude Herriko Etxean

Giro ederra Xorroxin Irratiak antolatutako kontzertuan

Apirilaren 25ean, Xorroxin Irratiak antolatutako kontzertua egin zen. Lesakako lizentzia lortzeko, 'Euskalduna hitza, bertakoa bihotza'

izenburuean burutzen ari den ekitaldien barnean. Ekaitza elkartearen, gazteentzat afaria izan zen lehenik, eta gero Pottoka amaiurtarrak

eta Petti beratarrak beraien kantuak aurkeztu zituzten. Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina halere giro ederra izan zen herrian.

flash

Kantaldia elizan larunbatean

Larunbat honetan, maiatzak 9, arratsaldeko 8etatik aitzinera, Bortzirietako Giltzarri gazteen abesbatzak kantatuko du elizan.

Solasaldia UEMA Egunaren inguruan


Maiatzaren 15ean, solasaldia eskainiko dute arratseko 8,30etatik aitzinera Ekaitza elkartearen Jakoba Errekondo eta Iñaki Arregik, «UEMA eta herri ttikien bizitasuna» gaiari buruz.

Ander Agesta

pilotaria 20 urtetik beheitiko Espainiako txapelketa suertatu da Valladoliden jokatutako eskuz binakako txapelketaren finalean. Aurrelari arantzarrak Iriarte burlatarrarekin egin zuen bikotea eta Etxaniz-Laskurain gipuzkoarrekin 22-12 irabazi zieten.

ttipi-ttapa internet

helbide berriak  **Internet: jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa**
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com



LESKA

Zure ingurua klase guzitanok inektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagubozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

BERA DESINFECCIONES

☎ 948630155
BERA

SAROB

okindegia 

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tinoa: 948 630 899 - BERA



MARTIKO

Gure baserrietako produktuak

☎ 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

Altsupereako Mikel Petrirena Nafarroako EHNEko Idazkari Nagusia izaten segituko du


Honela erabaki zen sindikatuko III. Kongresuan

TTIPI-TTAPA

Altsuperea baserriko Mikel Petrirena Alzuguren izanen da, orain arte bezala, Nafarroako EHNE sindikatuko Idazkari Nagusia, apirilaren 26an Iruñean burututako III. Kongresuan erabaki zenez. Bilkuran nekazaritza eta abelzaintza arloan Nafarroako Gobernuak daraman politika salatu zen. Dirulaguntzen banaketarekin ere ez dira batere konforme agertu EHNEko ki-deak.

«FAMILIAKO NEKAZARITZAREN BALIOA DEFENDATU BEHAR DUGU»

Kongresura agertutako 250 afiliatuak datozen lau urteotan sindikatuak segitu beharreko lan ildoak ere finkatu zituzten. Honela,



Altsupereako Mikel Petrirenak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza banaketa salatu du

Artxiboa

Mikel Petrirenak berak azpimarratu zuenez, «garrantzitsuak garel

sinisten hasi behar dugu. Familiako nekazaritzaren balioa defen-

datu behar dugu, internazionalizazioaren aitzinean. Nekazal politikaren deszentralizazioa lortu beharra dago eta norbere politika planteatu».

Lehendakari kargua Zolinako Natxo Larraizarrek beteko du hemendik aitzinera. Bi postu garrantzitsuuenekin batera, zonalde ezberdinetako arduradunak aukeratu ziren. Honela, Baztan, Bidasoa eta Malerrekako arduradunak Santi Urrutia, Oskar Ilarregi eta Patxiku Irisarri izanen dira. Leitzaldeko arduraduna, berriz, Xabier Sestorain izanen da.

Produktzio arloetako arduradunen artean ere izanen da eskualdeko ordezkariarik. Untxi hazleen artean, zehazki, Jose Luis Tainta lesakarra izanen da arduraduna.

MALERREKA

Bertso afaria maiatzaren 16an Iturengo Altxunea erretegia

Maiatzaren 16an, larunbata, arratseko 9,30etatik aitzinera bertso afaria izanen da Iturengo Altxunea erretegia. Iturengo Ibintza kultur taldeak antolatuta. Bertsolari gonbidatuak Maialen Lujanbio eta Xebastian Lizaso dira. Txartelak ohiko lekuetan erosten ahal dira 3.000 pezetan.

Ez da hau, ordea, udaberri honetan Malerrekane egin den lehen bertso afaria, apirilaren 25ean Lizaso bera eta Egaña izan baitziren Urrotzen, Salaberri akordeolariarekin.

ZURE EZKONTZA EGUNA MUSIKAREKIN ALAITU NAHI BADUZU HEMEN GAUDE ZURI ALAITZEKO

Jalisco Band

Tel: 948450590 Jalisco • 948450240 Juan Carlos

GAZTANDEGIA

LIZUN

Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BEINTZako OSTATUA

948 450 014

BEINTZA-LABAIEN

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334

DONEZTEBE

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Bello

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINENA Etxea
San Andres Karrika, 40
NARBARTE
943 - 61 50 55

Dehontuak akordeoiak erosterekoan

DONEZTEBE

Herriko ehiztariak denboraldi ona izan dute aurten

115 lagun elkartzen dira Bear Zana ehizi elkartearen

PATXI IRIARTE

Bear Zana ehizi elkarteak kideak kontent daude pasatu berria den denboraldiarekin eta gogo berriz prestatzen ari dira hurrengoak. Jakina denez, aurtengo Sanpedrotan ehizi ibilaldi konpetizioa izanen da eta iragarpen hau aitzaki ona da balantzea egiteko. Gauza onenen artean, azpimarratzekoa da bi etxola moldatzeko Herriko Etxeak eskainitako laguntza. Behin moldatuta, herritarrendako geldituko dira, ehiztari nahiz ehiztari ez direnentzako. Pagoak eta haritzak landatu dira Askin eta Kaserna mendietan eta horretaz gain, kartutxo-azalak bildu eta mendiak garbitu dira. Legasako ehiztariarekin bildu ondotik lasaitasuna etorri da, orain ehizi-kotoak beharrezkoak zituen 2.000 hektareak gainditu baititu.

Bota diren uso eta oilagorrena bertze istorio bat da, baina ehiztari onendako ez da hori garrantzitsuen. Inportan-



Ehiztariak pagoak eta haritzak landatu dituzte Askin eta Kaserna inguruetan

Artxibokoa

teena gauzak ongi egi-tea da.

Aurten 115 ehiztari

elkartu dira Bear Zana elkartearen, eta azken urteetako ildoari segitzen

bazaio, datorren urtean gehiago izanen dira, dui-kabe.

Erreka elkarteak antolatutako pala txapelketa asteburu honetan hasi da

Zonaldeko pala txapelketa onenetakoa, Erreka antolatzen duena, hasi berri da. Doneztebeko bestetan jokatuko den finala arte asteburuero izanen dira partidak. Azkenean 17 bikotek eman dute izena eta antolatzailleek lau multzotan banatu dituz-

te: A multzoan, Etxegoien-Zapiain, Etxeberria-Agirre, Apeztexea-Etxabarri eta Oiarzabal-Bango. B multzoan, Garcia-Pernaute, Altxu-Berho, Larralde-Lizasoain eta Gendiain-Goñi. C multzoan Virgilio-Txoperena, Apeztexea-Ganboa,

Lizardi-Mixelena, Bellarra-Apeztegia eta Ustarroz-Etxebarri. D multzoan, Estanga-Retegi, Ibarra-Ibarra, Ganboa-Telletxea eta Estetxe-Gaztelumendi. Finalerdietara multzo bakoitzeko txapeladuna igaroko da (A-D kontra eta B-C kontra).

Kinto besta maiatzaren 16an

Maiatzaren 16an bilduko dira Donezteben zenbait kintetako kideak: orain egun batzuk 1970koak baziren, oraingoan 1965, 66, 67 eta 68koen txanda da. Etxe bakoitzeko onena eta herriko traketsena, besta egiteko bildua. Bazkarirako lekua ez dute oraindik erabaki, baina Donezteben bertan izanen da. Izena eman nahi duen guziak Titi ostatura joan beharko du eta 2.000 pezeta utzi. Antolatzailleek adierazi digutenez, egitarauaren barnean ez da mezarik izanen.

Wichita taldea 12 Ostatuan

Munduko rock&roll eta blues elektriko onena urtero bezala Hamabi Ostatuan egonen da, kategoriako kontzertua eskaintzeko asmoarekin, beti bezala. Taldea osatzen duten hiru frantsesak maiatzaren 23an, larunbata, etorriko dira seguruenik. Iruritako bestekin batera egokitu bada ere, honela gusto guziak asetzeko aukera izanen da: jende aunitz eta besta giroa alde batetik, eta trago bat hartuz inguru hau bisitatzen duen talde onenataro bat aditu, bertzetik.

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA
MERTZERIA
 Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

Mari Cruz
LENTZERIA
 Parrokia 11
 Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
 24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
 Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
 ☎ 948 450 491

MALERREKA

Lotzabian eta Donamariako bideen moldatze lanak adjudikatu dira

Larraioz-Arregi enpresak egingen ditu bi lanak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Hirurteko Azpi-egitura Planean sartutako bi lan adjudikatu berri dituzte Beintza-Labaien eta Donamariako Herriko Etxeetan.

Beintza-Labaienen, Lotzabiango bidea moldatuko du Larraioz-Arregi enpresak, 21.792.512 pezetaren truke. Aurkeztutako borts proposamenen artean, Ultzamako Arraizko Bentako enpresarena izan zen onena. Hasierako prezioa %21,6an jaustez gain, lanak hiru hilabete egin beharrean bitan akitutuko dituztela hitz eman baitute.

Donamaria eta Gazteluko zenbait baserrietarako bideen zolaberitze lanak ere Larraioz-Arregi enpresak egingen ditu, 13.126.384 pezetaren truke. Zehazki errateko, Arkaitzgaina, Zanibarrea-Errekarte-Agerrekoborda eta Gazteluko Senberroa-



Larraioz-Arregi enpresa Labaiengo plaza ere moldatzen ari da

Argazkia: Aitor

Mitxiniberriko bidea hormigoizatuko dira.

Sei enpresa azaldu ziren lan hauek egiteko prest, baina ultzamarrena izan zen, oraingoan ere, eskaintzarik onena. Hasierako prezioatik %23 jautsi dute eta jogan den asteazkenean, apirilaren 29an, hasiak ziren dagoeneko lanean. Bi hilabeteko epea izanen dute akitzeko.

Ikastaroak maiatza eta ekainean Donamariako Bentan

Donamariako Bentan maiatza eta ekainean egingen diren ikastaroak asteondar honetan hasi dira. Zehazki, astearte eta ortzegunetan, arratsko 8,30etatik 9,30etara erlajazio teknikak eta pentsamendu baikorra izeneko ikastaroak emanen ditu Elixabet Ba-

diolak. Bertalde, larunbat honetan, maiatzak 9, goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 7ak arte, egun osoa hartuko duen ikastaroa emanen du terapeuta batek leku berean. Ikasgaia, oraingo honetan arnasketa konszientea izanen da.

Personaia

«Antzerki ikastaroa arras esperientzia polita da, ez da jende aitzinean aritzea bakarrik»

Garbiñe Leiza ittundarra da Langarra taldeak antolatutako antzerki ikastaroan parte hartzen ari direnetako bat. «*Talde ttikia gara, baina arras gustura gaude. Jendea, antzerki hitza aditu eta beldurtzen da, baina denetik egiten dugu, espresioa landu, gorputza, ahotsa...*». Ikastaroari segida eman nahi diote maiatza eta ekainean, baina horretarako jende gehiago behar dute. «*Jendea proba egiteko deia luzatzen diogu. Kondizione bakarra euskaraz jakitea da. Publiko aitzinean aritzeko beldur hori kendu nahi dugu, guk ikastaroan egiten duguna ez baita hori bakarrik, gauza auzitu eta arras politik egiten ditugu. Merezki duen esperientzia da*» dio Garbiñek.

Ikastaroaren irakaslea Joxelu Berasategi berritarra da eta izen-ematea merkea suertatzen da, erdia Langarra taldeak ordaintzen baitu. Animatuz gero, ortziral honetan, maiatzak 8, atsaldeko 8etan ager zaitzke Malerrekako Euskaltegiko atarian. Informazio gehiago nahi izanez gero, berriaz, deitu 948451746 telefonora (goizez, Esther) edo 970406651 (arratsalde, Garbiñe).



Garbiñe LEIZA

LEITZALDEA

Leitzako Joantxenea baserriaren alde herri kirol jaialdia eta bertso saioa maiatzaren 10 eta 17an

JOSEBA AZPIROZ

Orain berriro Leitzan erre den Joantxenea baserrikoentzat dirua ateratzeko, zenbait jaialdi prestatu dira. Igande honetan, maiatzak 10, eguerdiko 12etan, Lekunberriko pilotalekuan herri kirol jaialdia

izanen da. Bertan Arros-pide, Olasagasti, Arretxea, Senosiain, Patxi Astibia, Miguel Iturrarte, Enrique Bildarratz, Iñaki Perurena, Nartxi Saralegi eta Esteban Saralegi aizkolariak arituko dira. Hauekin batera, Mieltxo Saralegi eta Iñaki Perurenaren

14 urteko semea, Inaxio arituko dira harrijasotzen. Hau bere marka berria ezartzen saiatuko da, 130 kiloko harriarekin. Gero, Areso eta Imotzko sokatira taldeak arituko dira eta azkenean, koxkor-biltze saioa izanen da.

Hurrengo igandean,

maiatzaren 17an, berriaz, arratsaldeko 6,30etan, Leitzako zineman bertso saioa izanen da: Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Jon Azpillaga eta Imanol Lazkano bertsolariak arituko dira, Manolo Arozena gai-jartzailearen esanetara. Ondoren, leitzar batzuk ere kantari arituko dira.

Ikuskizun politik helburu on baten alde.

Enaki Txarandaka

Bidasoa, 50 • BERA • © 948 630 589

ERREKANBIO ORIGINALAK OSAGARRIAK
Autoak gidatzeko baimena beharrezkoa da

YAMAHA
QUADS

NAFARROA ETA GIPUZKOAKO BANATZAILEA



BADGER YFM 80



BREEZE YFA 125



BLASTER YFS 200



BANSHEE YFZ 350



WARRIOR YFM 350 X



WOLVERINE YFM 350 FWX

SALMENTA ETA ALOKAIKUA

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia



- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak.
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA



EGITARAU

dantzaldia MODESTO-
rekin.

rekin. 5etan pilota par-
tida eskuz. Arratsalde
eta gaez dantzaldia
EKLIPSE taldearekin.

sa. 12,30etan Modes-
torekin argisoinu mozo-
rratuak Dantxarinear
barna. 4etan haurren-
dako jokoak eta txoko-
latada. 9etan mozorro-
dantzaldia adin guztie-
tako jendeari zabaldua.
12etan kontzertua

1967-68 ikasturteko
argazkian Moncho
Blanco, Daniel Halty,
Angel Ariztia, Angel
Bengotxea, Pedro
Jose, Roman Ariztia,
Justo, Juan Luis Sar-
ratea, Martin Jose,
Patxi, Mikeli Cenoz,
Juan Ramon Otegi,
Txomin, Mikeli Azka-
rraga, Manoli Azka-
rraga, Gema Sarra-
tea, Coro Ameztoui,
Aurora, Lupita To-
masena, Lourdes
Sarratea, Ines
Suhas, Ana, Marisa,
Juan Miguel Mihura,
Jaime Larralde, Jose
Antonio, Edurne
Ariztia, Jose M^a Ariz-
tia, Irene Verdu, Mai-
te Otegi, Jose Miguel
eta Mayi Halty. Mai-
sua berriz, Don An-
gel zen.

Asteazkena 20
Salbatore Bezpera
Arratsaldeko 8,30etan:
Altxaferua. 9,30etan
afaria Indianobaitan eta

Ortzeguna 21
Salbatore Eguna
11etan Meza Nagusia
eta ondotik aperitiboa
plazan Ainhoako klika-

Ortzirala 22
Haurren Eguna
11etan Herri Bizikros-

BEOTXEA

JATETXEA - HOSTALA

Paelletan espezializatuak

© 948 599114-948599043 • URDAZUBI

PEPITA OSTATUA

Janari Denda

Tfnoa: 94859 90 27 - URDAZUBI

M^a Cruz Plaza
Harategia

Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

INDIANOA-BAITA

Jatetxea - Hostala

Ongi pasa herriko bestak

Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

Rosa Mentaberri

Ileapaindegia

© 948 59 91 29 - DANTXARINEA • URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES

GARRAIOAK

• Luzerna
• Agotza eta lastoa : 948 59 91 34
• Luzerna - pentsu granulatuen URDAZUBI
SALMENTA eta EXPORTAZIOA

GEMA SARRATEAK
UTZITAKO ARGAZKIAK



1975-76 ikasturteko argazkian Coro Ameztoi, Txomi Mihura, Asun Irazoki, Maite Otegi, Gema Sarratea, Jose M^a Ariztia, Mayi Halti, Edurne Ariztia, Ana, Juan Miguel Mihura, Irene Verdu, Jose Miguel Ameztoi, Jaime Larralde, Iñaki Sarratea, Cecilio Sansiñena, M^a Jesus, Ana Ester Menta, Joaquin, Iñaki, Javier Larralde, Patricia, Antonio, Josune eta Fermina ikasleak ageri dira, bertzeak bertze, Clara eta Javier maisu-maistrekin batera.

GEMA SARRATEAK UTZITAKO ARGAZKIAK

HASH, ZAPOZAIN eta IRRINTZINA taldeekin.

12etan GAUBELAtaldea.

Larunbata 23
1,30etan aperitibo Sakanako trikitilari-ekin. 2,30etan zikiro-jatea Sakanako trikitilarien animazioarekin. 8,30etan mariatxiak.

Igandea 24
5etan magia ikuskizuna. 6etan dantza saioa. 7,30etan dantzaldia YATAGAN taldearekin. 9etan erri-faren zozketa. Gauer-dian 'Pobre de mi'.

ANGEL BENGOETXEA

KLASE GUZIETAKO
HARGIN LANAK

Tfnoa: 59 91 66 - URDAZUBI

Faustino ETXABE Tailerrak

Autoen konponketa

Besta on batzuk pasa!!

© 599038 • ZUGARRAMURDI

ZUBIONDOA

Ostatu - Autozerbitzua
Larrua (txaketak, boltsoak...)

© 59 90 41 - DANTXARINEA • URDAZUBI

ARRETXEIA BENTA

• Autozerbitzua • Zeramika •
• Larrua • Tabakoa •

☎ 599015 - DANTXARINEA • URDAZUBI

ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karreteran, 3. km
Tfnoa: 59 91 31 - URDAZUBI



ETXELEKVA GASNATEGIA

ARDI eta BEHI GASNA
ETXEKO GAZTANBERA eta ZENBERENA

Zugarramurdiko karretera, © 599169 URDAZUBI

MENTA Jatetxea

Tfnoa: 59 90 20

DANTXARINEA
URDAZUBI




Jatetxea Erretegia

© 599042 • URDAZUBI

Pantxo IRIBARREN, alkatea:

«Bizpahiru gazteren gain dago besten antolaketa, horrek arazoak sortzen ditu»



Gure eskualdean, alkate karguan urte gehien daramana da Pantxo Iribarren, Urdazubiko alkatea. «Hemeretzi urte, demokraziako lehen alkatea izan nintzen eta geroztik hor nago».

Hainbat lan egin izanen ditu urteotan, baina besten antolaketa ez dago horien artean. «Bestak gazteek antolatzen dituzte. Beraiek arduratzen dira dirua biltzeaz, ostatua paratuz, boletoak salduz, pilota partidetan bandeja pasatuz, etxex-etxe eskatuz... Herriko Etxeak sos pixkoko bat ematen die, aurten 425.000 pezetauste dut. Aurrekontu osoa, aldiz, 2 milioi ingurukoa izanen da». Gazte guztiak, ordea, ez dira neurri berean sartzen antolaketan eta horrek arazoak sortzen ditu, Pantxok erran digunez. «Gazte jendea kanporat gaten da. Beti bizpahiru neska-mutil izaten dira lanean aritzen direnak eta azkenean nekatu egiten dira, hori izaten dire komediak... Nere iduriko hori da arazorik haundiena». Alde batetik, normala bezala ikusten du hori Pan-

txok, «gazteak besta egitea maite du, lehen ere horrela zen eta orai...».

Honenbertez, zaila izaten da nobedade handiegirik sartzeari Salbatore bestetako egitarauan. «Aurten haurrendako zerbait gehixeago egin nahi zuten. Izan ere, oraigo musika, gazteendako da, haurrak ere hor ibiltzen dire saltoka eta xaharrok berri ahalketuak. Adin batetik goiti ez duzu soporatzen ahal hone-lako soinu haundia» dio alkateak. Musika izaten da, hain xuxen, urtero-urtero bestetako diru zatirik haundiena eramaten duena.

«Kanpotik ere jende ainitz etortzen da»

Iruritaokokin batera, urteko lehen bestak diren hauetara kanpotar aunitz etortzen dira. «Aste ondarrean gazte jendea ibiltzen da, baina Salbatore egunean ere, Frantzia besta eguna denez, jendea ainitz etortzen da Ain-

Pantxo Iribarren, Urdazubiko alkatea da azkeneko hemeretzi urtetan

ARGAZKIA: KARMELE

PELLO BENTA

Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...

Tfnoa: 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI

- Lehengo modako janlekua.
- Etxeko janaria.
- Kanpoan jokuak haurrentzat.

© 948 599 222 • URDAZUBI
IKABURUA Ostatu-jatetxe-erretegia

BENTA CASTRO

Ostatua
Autozerbitzua
Josenea Camping
jatetxea

☎ 59 92 40 • 59 90 11
DANTXARINEA • URDAZUBI

OLAZELAI

Ostatua
Autozerbitzua
Zeramika

☎ 599051
DANTXARINEA
URDAZUBI

Kategoria bereziko hostala

IRIGOIENEA

Tel.: 59 92 67 • Faxa: 59 92 43
URDAZUBI

Benta - Jatetxea - Souvenirs - Janaridenda

PATXI
DANTXARINEA - faxa 59 92 16 - ☎ 59 91 06

MIKELEN BORDA

Jatetxea
Ostatua
Autozerbitzua

Tfnoa: 599045
DANTXARINEA
URDAZUBI

hoatik, Zuraidetik, Saratik, Ezpeletatik... Han baino merkexego egiten dute besta eta...».

Herriko Etxeak ere harrera egiten die auzo herriei. «Bazkaritxo batean biltzen gara besten bigarren egunean Ainhoa, Ezpeleta, Zuraide, Sara eta Senperekoekin, zabor biltzea eta bonberoak direla eta, beraiekin Mankomunitatean baikaude. Alde huntatik Zugarramurdi eta Baztangoa etortzen dire».

«Auzoetara argia eramaten ari gara»

Bestak hasteko puntuan badaude ere, ez da komeni alde batera uztea Urdazubin aurten gauzatzen ari diren lan nagusiak. «Mementuan Alkerdi eta Landibar auzoetara argiaren distribuzioa egiten ari gara. Pittakapittaka ganen da eta bigarren fasean bertze auzoak egimen ditugu. Makineria guzia, jeizteko makinak... 220 Volt-etik 380ra pasatzen ari gara, distribuzioa hobekiago egiten omen da. Hemen argia gure kontura dugu, ez da Iberdrolarena» dio Pantxok. Bertze lanen artean, errotaren antolatzea egonen litzateke, «lehen ere ibili ginen eta orai subentzioa dugunez, berriz hasiko gara».

Honetaz gain, Santiagoko Bidearen barnean, monastegia «eta partikulazki klaustro moldatzea nahi ginuke, baina ez dugu dirurik lortu. Saneamendua egin eta zola harri lauzekin eman nahi dugu». Sosa gehiago izanez gero, bertze lanetan sartzeko gogo erakutsi du Pantxok, «zenbait baserrietako bideak hobekiago antolatu... berriz ere dirua eskatu beharko dugu».

Herriko Etxearen urteko aurrekontua «90 milioi ingurukoa izanen da pixko bat goiti beheiti», alkatearen erranetan. «Herri tikia gara, bainan halere gastu haundiak ditugu, argian berean...». Guardiazibilak Dantxarinear zuen etxetia ere eskuratu nahi du Urdazubiko Udalak, «Turismo Bulegoa, Gizarte laguntzailerak, Cederna-Garalurko teknikoak... bertan biltzeko. Zugarramurdi eta Urdazubin, bietan harat-honatean ibili ordez, hor zentralizatuko lirateke».



Juan Luis, Jose M^a, Ignacio, Jesus, Antonio, Mirentxu, M^a Luisa, M^a Angeles, Mikelita, Mirentxu, Bernadet, Mikelita, M^a Isabel, Angel, Pello, Patxi, Jose M^a, Angelatxu, Maite, M^a Carmen, M^a Jesus eta M^a Lourdes ageri dira argazki honetan, bertze ezezagun batzuekin batera



Ines Almandoz, Roman Ariztia, M^a Luz Redondo, Maite Otegi, Mayi Halti, Gema Sarratea, Elena Irigoien, Edurne Ariztia, Irene Verdu, Coro Amezttoi, Idoia Irigoien, Juana Iturria, Angel Arozarena, Pello Etchart, Jose M^a Ariztia, Jose Antonio Menta, Juan Miguel Mihura eta Jose Miguel Amezttoi, beraien irakaslearekin.

GEMA SARRATEAK UTZIA

Zugarramurdi eta Sarako Herriko Etxeekin elkartzen dituen Xareta elkartearen ere gustora ageri da Urdazubiko alkatea. «Lehendik ere harreman haundia ginuen auzo herriekin, baina el-

karte honek gehiago lotu gaitu. Badakizu, bidexka hori modu onean mantendu behar da, garbitu, konpondu...». Hilabete honetan Bilbon ospatuko den feria batera gatekoak dira. Zenbait

ikastaro ere antolatu dituzte, euskara, frantsesa, gaztelera, ingelese... «Orai jendea eta turistak errezebitzen ikasten ari dira zenbait lagun, turisma eskaintzari kalitatea emateko asmoarekin».

Asteazkena 20 Bezpera

12etan altxaferua, txistulariak karriketan eta ezkil-jotzea. **5etan** laxoa partida. **8,30etan** ezkil-jotzea. **9,30etan** baztan zopak. **Gauetz** mozerro dantzaldia TRABUKO taldearekin. Sariak izanen dira.

Ortzegune 21 Salbatore Egune

10etan argi soinuak txistulariekin. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** herriko dantzariak gaitero eta txistulariekin. **1etan** hameketakoa. **4etan** Bagordin plater tiraketa. **6etan** nesken futbol partidua. Arratsalde eta gauetz JOSELU ANAIK. **10etan** mutildantzak.

Ortzileria 22 Haur eta Jubilatuen Egune

10etan argi soinuak herrian txaranga eta txistulariekin. **11etatik 1etara** Haurrendako Jokoak. **2etan** Oilo Jatea eta bazkaria jubilatueendako Gure Kayola elkartean. **3,30etan** Haur Jolasak. **5,30etan** txaranga herriko karriketan. **6,30etan** txokolate jatea. **10etan** mutildantzak. Arratsalde



Aintzinako irudi xarmangarri honetan, 1910. urtean Iruritan egindako antzerki lanean parte hartu zuten haurrak eta irakaslea ageri dira.

eta gauetz dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. **10,30etan** esku-pilota partidak. Goizaldean txaranga.

Larunbata 23

11,30etan argi soinuak txarangarekin. **2etan** herri bazkaria txarangare-

kin. **7etan** emaztekin III. Aranabia paleta txapelketaren finala. Arratsalde eta gauetz dantzaldia eta gaupasa DRINDOTS taldearekin. **10etan** mutildantzak.

Igandea 24

10etan XLV. Salbatore txirindulari saria. Nafa-

roako jubenilen txapelketa. **11etan** Meza Nagusia. **11,30etan** txaranga. **2etan** Baigorriko askaldegietan gazteendako bazkaria. **6etan** dantza erakustaldia Altsasuko Aintzindari taldearekin. Arratsalde eta gauetz dantzaldia DRINDOTS taldearekin. **10etan** mu-

tildantzak. **4etan** kalzontzillo eta braga lasterketa.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa


Zaldubia Poligonoa • ☎ 948580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde
eta
Bainu
Mobleak



OLARI

Jatetxea



Tfnoa: (948) 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituearekin hornitua

ARKUPE GOZOTEGIA

IRURITA ☎ 452021

ELIZONDO ☎ 452393

Tarta bereziak
eta Etxeko
izozkiak

W A N VIELA

PELUKERIA

Ile mozteak, Permanentek,
Metxak, Solarium-a,
Makilaia...

Pedro M^o Hualde ☎ 580618
IRURITA



LACOSTA
ANAIAK
TAILERRAK


Kotxe marka
 guztien
KONPONKETA

Txapa eta pintura
 erreparazioak
 bankada eta
 kabinarekin

PRE-ITV, ITVtan
 dauden aparato
 berdinekin

Zaldubia Poligonoa
 ☎ 452119
 IRURITA

Besta eta ospakizun giroko argazki politak. Goitian, ezkerrean 1934. urtean egindako antzerki batean ageri dira Iruritako neska gazteak. Ondoa, 1950. urteko bestetako irudia. Behegian, ezkerrean 'Iñaki Peña' ageri da bestetan, pankarta eta guzi. Ondoa, 1950. urteko bestetarako ezpela ekartzen.



Marmol eta Granitoak
 Sukalde eta bainurako entzimerak
 Hileta artea
 Lanak orokorrean

Zaldubia Poligonoa • IRURITA
 Tel. eta Faxe: 948 45 22 00



Maderas
GOMEN

- Era guzietako atea, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...
- Parket flotantea

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 58 06 45



1920. urtean eskolako haurrek ateratako erretratoa. Ageri denez, maisua hamar urte lehenago zegoen berbera zen.

**MUEBLES
A METS**
mobleak orokorrean

Bidasoa 45-60

Tfnoa:
948 630 537

BERA

**Neurrira
egindako
mobleak**



HIRURTEKO PLANA

Zonaldeko zaborren tratamendu Zentrora inbertsioak beranduago egingen ditu Nafarroako Gobernuak

Malerreka eta Bortzirietako Mankomunidadeek eta Baztango Udalak eginga zuten eskaria



TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 1997-99 Hirurteko Azpiegitura Planak zenbait aldaketa izanen ditu, Rafael Gurrea Leku Administrazio Kontseilariak sinatutako Foru Aginduaren arabera. Bertzeen artean, Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunidadeek eta Baztango Udalak bultzatutako zaborren tratamendu zentrorako inbertsioak beranduago emanen dira. Gai honen estudioa egin duen Hibaia enpresak aurkeztutako borts proposamenen artean, Nafarroako Gobernuak Arangurenera zaborra eramateko Mugairin transferentzia zentroa egitea proposatzen duena onetsi duela iduri du.

Iazko uztailaren 4an Hirurteko Plana onartutako planaren arabera, zentro honek 160 milioi pezetako dirulaguntza jaso behar zuen iaz eta 24 milioi aurren. Orain, Nafarroako Gobernuak abenduaren 1a bitarteko epea utzi die Baztango Balleko Udalariei eta Malerreka eta Bortzirietako Mankomunitateei inbertsioa behin betikoz Planean sartzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezaten. Honela, jogan den urterako aurrakia zegoen inbertsioa 1999. urtean emanen da.

Gisa honetara, tratamendu zentroak 24 milioi pezetako inbertsioa jasoko du aurren eta 160 milioi pezeta 1999an.



URTE HONETARAKO, ERRAZENA

Aholkulariak Errentan



EROSOTASUNA
XALOTASUNA
AZKARTASUNA
ESPERIENTZIA



RURAL KUTXA

GOIZUETA

Lehenengo Dantzari Txiki Eguna maiatzaren 17an

Ehun dantzarik parte hartuko dute

ESTEBAN AROZENA

Euskal folklorenzaleak diren beste herri askoren antzera, Goizuetak ere bere Dantzari Txiki Eguna izanen du aurten, maiatzaren 17ko igandean hain zuzen.

Lesaka, Urretxu,

Orereta, Ordizia eta Goizuetako ehun neska-mutiko izanen dira festa haundi honetako protagonistak. 11etan plazan elkartutakoan, herriko kaletan barrena ibiliko dira, eta desfile hau bukatu orduko, 12,30ak aldera, hamar

minutuko emanaldia burutuko du talde bakoitzak. Dani, Ainara eta Ebaren musika taldeak arratsaldean eskeiniko duen saioarekin bukatuko da Udalaren laguntzarekin Umore Onak antolatzen duen I. Dantzari Txiki Eguna.



Truke eta mus txapelketak

Juli eta Korok irabazi zuten Umore Onako truke txapelketa Patxi Bakero eta Patziku Goizuetaren kontrako finalean. Musean berriz, Joxeantonio Apezetxea eta Manuel Ansa suertatu ziren garaile, eta Juan Apezetxea eta Aitor Mendizabal bigarren.



Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta depuradora inauguratuak

Rafael Gurreak eta Yolanda Barcinak, Nafarroako Gobernuako presidente ordea eta Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitzako kontseilariak, azken hilabeteotan herrian eraikitako garrantzi handiko bi obra inauguratu zituzten apirilaren 18an: Babes Ofizialeko hemezortzi etxebizitza eta ur-zikinen tratamendurako depuradora. Premiazkoak diren beste hainbat proiekturen berri ere jaso zuten alkatesaren ahotik Gobernuako bi ordezkariak.



Judo eskolaren festa

Ane Zinkunegik zuzentzen duen judo eskolak bere festa ospatu zuen apirilaren 26an

ARESO

Sokatira taldea bigarren pisu txikian

Haundiagoetan txapela lortzeko itzaropena ez dute galdu

JUANA M^a SAIZAR

Euskal Herriko sokatira txapelketan aresoarrak bigarrenak izan dira Amezketan apirilaren 26an egindako 560 kiloko finalean. Emaizta ona da, baina pisu haundiagoetan hobekiago

ibiltzen direnez, ea txapelen bat eskuratzeko aukera duten.

❖ **Hirurteko** Planaren barnean zolaberritze lanetarako dirulaguntza lortu du Udalak, 3 milioi terdi ingurukoa. Sastineako iturritik ha-



si eta elizarainoko bi-dea egingo da.

❖ **Sendabelar** ikastaroa hasi zen apirilaren 23an. Dozena bat lagun ari dira. Herrian zehar ikusi ditugu han eta he-

mengo belarren izena eta daukaten aprobe-txamendua ikasten.

❖ **Aste Santuko** oporetan herriko zortzi urtetik gorako umeak xake ikastaroa izan dute,

iazkoari segida emanez. Gustora ibili dira denak.

❖ **Pake-Tokiko** mus txapelketan irabazle Jose Ramon Etxarri eta Kiko Aldaregia izan dira aurten.

Polikiroldegia eraikitzeke dirulaguntza eskaera aurkeztu da

150 milioi pezetako aurrekontua izanen luke

JOSEBA AZPIROZ

Joan den astean aurkeztu du Udalak polikiroldegia eraikitzeke dirulaguntza eskaera Nafarroako Gobernua-ren Kirola eta Gazteria Departamenduan. Aurten ez da dirulaguntza eskatzeko deialdi berezirik ireki, aurreko urtean egindakoan oinarritu behar zela eta ia azken momentura arte udala ez dela horretaz konturatu. Hala ere, bete beharreko baldintza guztiak justifikatu dira eta joan den urteko proiektua sartu da, kopapena aldatuz. Koka-pen berria, txantreetako atzealdea, otsaileko batzarrean erabaki zen. Gogoratu behar da polikiroldegiaren aldeko herri ekimena sortu ze-



Polikiroldegiaren aldeko herri ekimenak ez du garbi erabaki pilotalekua beharko duen ala ez

Argazkia: Ima Zestau

la herrian eta honek ez duela oraindik garbi erabaki polikiroldegiak pilotalekua beharko duen ala ez. Hala ere, epea zela eta, pilotalekuarekin eskatu da.

Proiektu honen aurrekontua 150 milioi pezeta ingurukoa da. Dirulaguntza eskaera honetaz gain, Hezkuntza Departamenduko arduradunarekin bilera es-

katua dago, polikiroldegia eskolako eremuan dagoenez, hauek ere dirulaguntzaren bat egiteko prest azaldu izan baitira, kopurua oraindik zehaztu ez bada ere.

Lau famili-langile hartu ditu Gizarte Zerbitzu Mankomunidadeak

Leitza-Goizueta-Areso-Aranoko Oinarritzko Gizarte Zerbitzu Mankomunidadeak, lau famili-langile kontratatzeke deialdia zabaldu zuen. Epaimahaiak frogak egiteko 51 lagun onartu bazituen ere, 17 lagunek gaituzte dituzte frogak guztiak (teorikoa, euskara, psikoteknikoa, zo-

naldearen ezaguera eta praktikoa). Orain arte lan horretan ari zirenak izan dira puntuaketa altuena ateratzenak: Mari Luz Pellejero (Aresoarra), Mari Jose Aizpuru (Goizuetarra), M^a Jesus Zugarra (Aranon bizi den Goizuetarra) eta Juana Mari Saizar (Aresoarra).

Hirugarren Munduari laguntza

Udalak 'Euskal Fonda' elkartearen bitartez hirugarren munduko herri batetan proiektu bat finantzatzea erabaki zuen. Asoziazioaren helburua zera da: «Herrien arteko desberdintasun egoera latza-ren oinarri eta ondorio-etaz herritarrak sensibilizatzea; eta munduko ordenu berri justuago eta solidario bat ezartzeke elkarlanaren be-

harra transmititzea». Aportazioa herri bakoitzaren biztanlegoaren arabera izaten da eta Leitza 125.000 pezetakoa dagokio. Bestalde, herriak aurkeratutako ordezkari batek, proiektuaren segimendua egiteko aukera izanen du. Une honetan, Euskal Fondaoren bitartez proiektu bat finantzatzen duen Nafarroako lehen herria gara.

flash

❖ **Kanposantuan** arazo ugari sortu omen dira aspaldi honetan, horien artean larriena, hildakoak lurperatzeko leku falta da. Direla bi urte Udalak 96 nitxo eraiki zituen baina hala ere arazoa ez omen da moldatu. Honen inguruan bi erabaki hartu ditu Udalak: hildakoen gorpuzkinak zaharrenez aurrera ateratzen hastea, eta kanposantua zabaltzeko edota nitxoak egiteko aukerak aztertzeke batzordea osatzea. Erabakiaren aurkako alegazioak egiteko epea izanen da.

❖ **Plazako** eskuz binakako pilota txapelketaren lehen partidua maiatzaren 9an, arratsaldeko 3etan hasiko da.

❖ **Futbol zelaiaren** eraikuntza-lanak *Construcciones Azpiroz y Saralegi, S.L.* enpresari ematea erabaki zuen Udalak apirilaren 24ko batzarrean. Lanak 32,1 milioitan egingen dira, hau da, aurrekontua baino 600.000 pta gutxiago. Deialdi zabaldua egin bazen ere, enpresa hau izan da proposamena aurkeztu duen bakarra. Lur-eremuen desjabetzeak dagokionez, bi jabeetatik bat akordio batera ailegatu zen Udalarekin eta dagoeneko kobratua du bere lurra dagokiona: 2.100 pta metro bakoitzeko. Beste jabea ez da oraindik akordio batera ailegatu.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Egoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

ttipi-ttapa

6.600 harpidedun
23.000 irakurle

Zure publizitatea
etxe xoko
guzietan

☎ 63 11 88

BAZTAN

Euskararen aldeko autobus ibiltaria maiatzaren 16an etorriko da

Hizkuntzaren egoera Nafarroan erakutsiko du herriz herri

JOSEBA IGARABIDE

Euskara sentsibilizazio kanpainaren barnean autobus ibiltaria maiatzaren 16an igaroko da Baztandik. Erratzuko plazan goizeko 11,30etan, Elizondon eguerdiko 1etan, Oronozen arratsaldeko 5etan eta Iruritatik arratsaldeko 6,30etan. Nafarroako eremu euskaldun eta mixtoko Euskara Zerbitzuek antolatu dute autobus hau. Nafarroako euskararen egoera modu atsegin batean ezagutarazi asmoz. Autobusera sartzen direnak 45 minutuko ikuskizuna izanen dute eta bideoa, jokuak, lehiaketa sariekin, bertsolariak... izanen dira.

Langileen aldarrikapenak

35 orduko lan astea aldarrikatzeko konzentrazioa izan zen Elizondon apirilaren 22an. Egun horretan ordubeteko lanuztea iragarrita zegoen eta irakaskuntza zentroetan eta lantegietan nabaritu zen geldialdia, ez horrenber-



LAB sindikatuak Elizondoko bulegoa zabaldu du

Apirilaren 25ean zabaldu zuen LAB sindikatuak Elizondoko Jaime Urrutia karrikaren 41. zenbakian duen egoitza. Bulego honetatik Baztan, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko langileei zerbitzu egoki eta eraginkorra eskaintzeko helburua dute. Inaugurazio ekitaldian Rafa Diez LABeko Idazkari Nagusia izan zen, Julen Mitxelorenarekin batera. Mikel Altzuart bertsolariak ere bertsoz agurtu zuen egoitza.

Arg.: Egin

tze komertzioetan.

Bertzalde, Baztango posta bulegoan atek itxi zituzten apirilaren 29an, huelga eguna zela eta. Espainiako Gobernua Posta zerbitzuaren pribatizazioa eztabaidatzen ari da eta Korreoseko langileen

ustez, honek kompetentzia basatia ekarriko luke.

Guraso Eskolaren saioa Lekarozko institutuan

Maiatzaren 14an, arratsaldeko 5,30etan Lekarozko institutuko

Guraso Eskolak saio berri bat egingen dute. Burtako Osasun Mentaleko Zentruko kide bat, arriskutsuak diren izaerataz arituko da.

Garagardo Besta

Ekainaren 6an ospatuko da Iruritan.

flash

Lekarozko aterpearen moldatzea

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarena den Lekarozko aterpea egokitzeko eta moldatzeko lanek 39.920.154 pezetako aurrekontua dute. Lanak, berez, apirilaren 15a eta ekainaren 22a bitartean eta urriaren 1a eta abenduaren 30a bitartean gauzatu behar dira. Halere, maiatzaren hasieran oraindik lanak eman gabe zeuden.

Iruritatako

Errebote plazako eserlekuak konponketa auzolanean egingen ari dira. Ehun urte betetzen ditu aurtun plaza honek eta laxoa txapelketako finala ere bertan jokatuko da. Errebote ondoko zola ere berritzeko aprobeztatuko dute.

Oronozen

batzarrea izan zuten joan den ortzegunetan. Eztabaidarako gaien artean, kameneroen etxebizitzetara eman beharreko aterabidea eta saihebidetza zeuden.

Xabier Idoate

lekaroztarra da aurtengo Sanferminak iragarriko dituen kartelaren egilea. Duela 27 urte sortu zen Lekarozen baina titikatik Iruñan bizi da.

Lekarozko

Kolegioko ikasle ohiak urteroko ospakizuna egin zuten apirilaren 26an. 11etan meza izan zuten, gero museoa bisitatu eta Iruñan jantzetxean bazkaldu zuten.

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala 8etatik aitzinerat. Lanuhata eta besta egunetan zabalak.

© 948 452121 • LEKAROZ

BAZTAN OPTIKA

ORDUTEGIA:
Astearte eta ortziraleko goizetan,
10etatik 1,30etara eta asteazken
arratsaldetan, 5etatik 7,30etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de
REPIJOL
AUTANO

**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 948 581 171 • ELIZONDO

*Eskisaroi
jantetxea*

Jaime Urrutia, © 948 580 013
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

BAZTAN

Apirileko Feria arrakastatsua ospatu zen Almandozko Beolan

Zenbait komertzio etxek apirilaren 26an antolatutako ekitaldian jende aunitz bildu zen

TTIPI-TTAPA

«Jendearen parte-hartzea eta harrera bihotzez eskertzen dugu» zioten antolatzailerak Almandozko Beola jatetxean egindako Apirileko Feriaren balorazioa egiterakoan. Izan ere, bertara agertutako 9 komertzioek, Jalisko Band musika taldeak eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAK beraien produktu berrienak erakutsi zituzten. Moda, Elizondoko Mareli eta Coco's eta Doneztebeko Ibarrola eta Mari Cruz arropa denden eskutik etorri zen, oinetakoak Elizondo Virgilio zapa-




Eguerdian eta arratsaldean egin ziren desfileen aitzakian jende aunitz hurbildu zen Beolara, izan ere modeloak inguruko herrietako jendea ziren.

Argazkia: Karmele

tadendak paratu zituen, mobleak Doneztebeko Telletxeak eta loreak Elizondoko Iris lore-dendatik. Eguerdia eta

arratsalde partean desfileatu zuten modeloen ileapaintze lanak Asun Viela iruritarrek egin zuten. Elizondoko Foto



Menak, goi mailako teknologia eta ordenagailuen bitartez egindako argazkien zaharberritzea erakutsi zuen.

TTIPI-TTAPA TELEBISTAK azkenik, aldizkariaren eta laister airean izanen den telebistaren berri eman zuen.



Erratzuko mus txapelketa

Joan den martxoaren 28an jokatu zen Erratzuko mus txapelketaren finalak eta argazkian saridun guztiak ageri dira beren trofeoekin. Aipatzekoa da aurtengoan ere gazteak suertatu direla txapeladun, Markos eta Jon hain zuzen, Toño eta Juan Mariaren aurka nagusitu ondotik. Sari banaketa eta gero, afari eder batekin akitu zen txapelketa hau. Argazkia: Xabi Ospitalek utzia

Elizondoko Udaberriko Kultura Zikloan ekitaldi interesgarriak

Elizondoko Justiziaren Kultura Batzordeak antolatutako Udaberri Kulturala Zikloak aitzinera segitzen du. Orain arteko ekitaldiek arrakasta izan dute eta bertze horrenbertze espero da egunotan egingen direnetan.

Ortzegun honetan, maiatzak 7, txotxongi-
loen enkantua erakutsiko du Jordi Beltranek, 'Anthologic' ikuskizunaren bidez. Larunbatean, maiatzak 9, gorputzaren hizkuntzaren berri emanen du Matxin mimoak, 'Ninai zini neu' emanaldian. Maiatzaren 11n, astelehena, 'Zuraren noblezia' gaiari buruzko solasaldia eskai-

niko dute Mikel Landa eta Eduardo Zubikoa arkitektoek. Maiatzaren 13an, asteazkena, 'Etxe beltzak, etxe zuria, Nafarroako arkitektura herrikoien moldatzea edo hondatzea' gaiaz arituko da Xabier Morras artista. Maiatzaren 15ean, ortzirala, 'Bizi berri bat' izenburupean, Zubietako errota eta Donamariako Jauregiaren zaharberritzeaz arituko da Maite Apeztegia arkitektoa. Maiatzaren 16an, larunbata, 'Etika eta estetika' gaia landuko du Mikel Iriondo, EHUKo estetika irakasleak. Ekitaldi guztiak Kasinoan, atsaldeko 8etan egingen dira.

ZUGARRAMURDI

Udalak dirulaguntza eman dio Kilimiliklik taldeari Xareta ingurua ezagutarazteagatik

Bergarako Nazioarteko Txotxongilo Erakustaldian parte hartu du

MARGARI ETA KORO

Kilimiliklik taldeak Zugarramurdirin jarria duen 'Sorgiñak' ikus-kizuna Euskal Herrian dagoen antzoki-finko bakarra da. Emanaldiak udan egunero eta urtean zehar asteburuetan izaten dire: huntaz aparte taldeentzat ere antolatzen dire emanaldi bereziak. Hau dena jakinarazteko Kilimiliklik taldeak publizitatea Euskal Herri osora bidaltzen du, eta publizitate hunekin batera Xareta eremuko bertze ezaugarriak ere. Hori dela eta Zugarramurdi-ko Udalak 42.817 pezetako dirulaguntza ematea Kilimiliklikeri.

NAZIOARTEKO TXOTXONGILO ERAKUSTALDIAN

Gan den apirilaren 23tik 26ra arte Bergaran



Beraien publizitatean Xareta inguruaren berri eman dutelako udal dirulaguntza jaso du Kilimiliklik taldeak

antolatu zen Nazioarteko IV. Txotxongilo Erakustaldia eta bertan Kilimiliklik taldea sortu zuten Mikel eta Estefari omenalditxobat egin nahiean, haiek sortutako pertsonai eta irudiekin erakusketa bat

egin zen. Gogoratu behar da Mikel bera sortzez bergararra zela. Erakusketa hau bera ikusteko aukera izan zengand den martxoan Zugarramurdirin antolatu zen Txotxongiloen Topaketan.

Mendi ateraldia Baigorriat

Baigorriin 'Nafarroaren Eguna' ospatzen zenez aitzakiarekin mendi ateraldia antolatu zen Zugarramurditik. Lehenbizian larunbatean herritik ateratzeko balin baziren ere, azkenean igandean berean 16 lagun abiatu ziren Gorrarenditik, eta nahiz eta eguraldi txarra egin, errepikatze modukoa omen da.

Hurrengo ateraldia maiatzaren 31n egingen da eta Zugarramurditik Intzolarra (Bera) izanen da.

URDAZUBI

50.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalak TTIPI-TTAPARI

Urdazubiko Udalak martxoaren 24an egindako ez ohiko batzarrean TTIPI-TTAPA aldizkariari 50.000 pezetako dirulaguntza ematea deliberatu zuten ahobatez.

TIBURCIO GOIENETXE

ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 -

ttipi-ttapa

Lasakako Erentzia eskuzteko eskaera aurkeztu du Xorroxinek

Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

948 631188

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313

ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 •



Muslarien ateraldia, Xaiako arduradunekin



Azkaingo goiti behera

Larrungo mazelean egindako lanen aurkezpena ortziral honetan

Ortziral honetan, maiatzak 8, aurkeztuko ditu Azkaingo Herriko Etxeak Larrungo mazelean egindako lanak. Ekitaldia eguerdiko oren batean Ihezelaia inguruan egingen da. Honat ailegatzeko bio modu izanen dira. Oinez joan nahi dutenek autoak harrobiaren aparkalekuan utzi eta gidariekin batera abiatuko dira (oren bateko bidea). Bertzeek Larrungo Tren Ttikia hartzen ahal dute San Inazio lepoan eta tarteko geltoki zaharrean jautsiko dira. Handik gidariekin Ihezelaia jontan dira (15 minuta trenean eta oren erdi oinez). Herriko Etxeak prestatutako bazkaria eskainiko da, soinu eta kantuen laguntzarekin.

Azkaingo Herriko Etxeak adierazi duenez, «*orain bi urte proiektu bat bertzerik ez ziren lan hauek apirilaren 10ean finitu ziren*». Lan hauek elgarrekin ezagutzeko gomita luzatu du ortziralera: «*Ibilaldi goxo bat egingen dugu gure Larrun maitearen maldetan*».

Herri Urrats Gauak mugimendua ekarriko du larunbatean

Bertzalde, Euskal Herriko goitibehera liga abiatu da

MIXEL ETA JACQUELINE

‘Eltzegorra joz’ lempetan, Herri Urrats ekitaldiak bere lehen aitada Saran eskainiko du usaia den bezala, gau mugimendutsu eta alai baten bitartez. Gaeko 8etarik goiti entzun daitezke Zizkuitz eta Izar txarangak, Xapre eta Zaharra trikitaliak, Niko Etxart, Betagarri eta Zanpa. Bertsolariek ere izanen dute bere tartea, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Jexus Mari Irazu Saran izanen baitira. Herrira sartzeko 25 libera edo 500 pezeta ordaindu beharko da. Eta jakina denez, biha-

ramonean Senpererat, Herri Urrats egun haundia besta giro goxoan pasatzera.

Euskal Herriko Goitibehera liga abiatu da

Ligaren kondu, lehen lasterkaldia Azkainen iragan da apirilaren 18an, San Inazio lepotik beheiti. Lehenbiziko biak Galdakaokoak dira eta hirugarrenak Lasarteko Soroa eta Anabitarte, iazko xapeldunak. Saratik ere Xalbat Leizagoien eta Jakes Bernet-ek osatu bikoteak parte hartu du eta xarmanki gainera, 29 bikoteen artean seigarren

geratu baitira sailkapen orokorrean!

Sarako lasterkaldia irailaren 5ean iraganen da eta antolatzaileek dei bat zabaltzen dute, egun hori baldintza hobere-netan iragan dadin, eta laguntza ekarri nahi dien guzieren bere burua ezagutaraz dezaten. Saran berean dei ditzakezue Jean Philippe Amorena eta Michel Guerendiain.

Usain oneko bidaia Bordele inguruan

Herriko Etxeko Edantegiko muslari xapeldunak bere oparia jasozuten apirilaren 18 eta 19an Bordele alde-
ra egin ateraldiarekin.

Bertan, Pomerol deitu eskualdea zeharkatu zuten eta Petrus arku egile Jauregi ospetsua bisitatu zuten, Saint Emilion eremua kurritu aitzin.

Sarako VII. Itzulia maiatzaren 31n iragaitekoa da

Sarako Itzuliaren zazpigarren aldi hau Mendekoitzez egunean iragaitekoa da, maiatzaren 31n eta ohi den bezala abiadak plazan egingen dira, goizeko 7ak eta 8ak artean. Egun huren antolakuntza, zazpigarren aldikotz, Axuria mendizale elkarteari zor diogu.



HERRI URRATS GAIA

Saran - 1998ko Maiatzaren 9an

Gaeko 8etatik goiti:

- ZIZKUITZ-IZAR txaranga
- XAPRE ETA ZAHARRA trikitaliak
- BERTSOLARIAK: Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Jexus Mari Irazu
- NIKO ETXART
- BETAGARRI
- ZANPA


SARRERA: 25 lib. - 500 pta

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

OSKORRI *liburudenda*

- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Papertegia-inprenta

© 948 592 245 • Petrina • ORONoz-MUGAIRI

EZKONTZAK

Elias Alvez Nunes eta **M^a Teresa Goñi Etxeberria**, Bragança-Portugal eta Arraiozkoa, apirilaren 18an.

Miguel Ramon Olano Zabaleta eta **Teresa Sotil Gorriti**, Leitza eta Betelu-koa, apirilaren 4an.

Carlos Migueltorena Etxandi eta **Miren Maritxalar Elgorriaga**, Donamaria eta Lesakakoa, apirilaren 25ean.

Juan Manuel Telletxea Zozaia eta **M^a Nieves Oiartzabal Zubieta**, Igantzi eta Alkaiagakoa, apirilaren 18an.

JAIOTZAK

Xabier Sarratea Goizueta, Zozaiakoa, apirilaren 3an.

Juan Ostiz Olalla, Doneztebekoa, apirilaren 17an.

Itsaso Elizalde Ugartemendia, Doneztebekoa, apirilaren 18an.

Ekiñe Mindegia Baleztena, Iturengoa, apirilaren 2an.

Unai Etxebeste Irazoki, Berakoa, apirilaren 7an.

Jaione Jimenez Jimenez, Berakoa, apirilaren 15ean.

Maria Iantzi Irigoien, Igantzikoa, martxoaren 19an.

HERIOTZAK

Emilia Perurena Iribarren, Goizuetakoa, apirilaren 16an, 65 urte.

M^a Jesus Basterra Layana, Elizondon, apirilaren 17an.

Pedro Miguel Egozkue Olazar, Elizondokoa, apirilaren 20an, 83 urte.

Tiburcio Etxeleku Lasset, Almandozkoa, apirilaren 25ean, 80 urte.

Juan Bazterrika Telletxea, Iturengoa, apirilaren 25ean, 79 urte.

Eugenio Etxeberria Telletxea, Legasakoa, apirilaren 23an, 84 urte.

Pierre Etxegaray, Sarakoa, apirilaren 18an, 92 urte.

Michel Halty, Sarakoa, apirilaren 21ean, 47 urte.

Jose M^a Belenguier Montaner, Beran, apirilaren 23an, 88 urte.

Salvadora Irisarri Sansiñena, Etxalarkoa, apirilaren 26an, 90 urte.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaila hau, haur-garbitetarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA

ETXEBIZITZA ASEGURUA

Aseguru bikaina

Ohiko garantiak gainditzen ditu eta segurtasun osoa eskaintzen dizu, ezaugarri bereziekin:

- Kaltetutakoa gaur eguneko balioan itzuliko dizu.
- Edukitzaile eta edukinaren balio estetikoak segurtatzen dizu.
- TB edota bideoa itzuliko dizu, aseguratutako arrazoi batengatik hondatzen bada.
- Ardura Zibila aukera 50.000.000 pezeta arte.
- Urak sortutako kalteengatik garantia, ez bakarrik aberia moldatzea, baita aberia bera topatzen sortutako gastuak ere.
- Kalte elektrikoak, lorategien moldatzea, kongeladorean daudenak...

Zure etxeko zaindaria

Zure etxebizitzarako aseguruak ez baduzu eta kezkatua bazaude Asegurua izanik ere, bere kobertura eta prezioa alderatu nahi baduzu

Zatoz eta informa zaitez!

ASCAT  
Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA


ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 948 450 266
DONEZTEBE

Usain oneko negozioa

ITGko adituek Baztan, Malerreka eta Bertizaran berriki egin ikerketa batek ingurune geografiko hau sasoioko loreak negutegietan hazteko arras egokia dela dio. Ikerketa honen ondorioak kontutan edukiz, CEIN erakundeak eta ITGk zonaldeko emakumei zuzendutako formakuntza programa jarri dute martxan, goiti doaien sektore honetan enpresa berriak sortzeko.

Den-dena alde

Baztan, Malerreka eta Bertizaranako eguraldia primerakoa da kalitatezko landareak egiteko. Bere kokapenagatik, gainera, Iparralde eta Euskadiko merkatuetatik hurbil, leku estrategikoan dago. Horrexegatik egiten dute CEIN eta ITGk langintza honen aldeko apostua zonaldean.

Neke haundirik gabeko lana da sasoioko loreak haztea (goiz ernatu beharrik ez, estres arrisurik gabe, ahantzi oporraldi eskasak eta asteburuetako lanaldiak...), eta azpiegitura haundirik ere ez da be-



Sasoioko loreen produkzioa: arrakasta aukera ugari ematen duen negozio eskuragarria.

har. Interes komertzial bereziko lan atsegina izateaz gain, nornahiren esku dago proiektua abiaraztea. Programan ageri den antzeko esplotazio bat martxan jartzeko inbertsioa ez da sobera handia eta 800 metro karratuko lur-eremuarekin aski izanen litzateke.

Nola sortu gisa honetako enpresa

Enpresa bat sortu nahi duten pertsonen kezka nagusia, produktuak merkatuan harrera ona izanen ote duen jakitea da, eta errentagarria izateko behar den haina diru emanen ote duen. Gauzak errazteko, CEINek aldez aurretik ikerketa sail bat burutu du hori jakiteko; zein diren erosleak behar dituzten produktuak; zenbat erosteko prest dauden, ... horrerik "Merkatu Ikerketa" deitzen zaio.

CEIN eta ITGk proposatzen dutena ez da ikastaro soil bat, bertze hainbat gai garrantzitsu ere landuko dituen programa baizik. Gisa honetako enpresa bat sortzeko prest diren emakumeek, proiektu polit batean sartzeaz

gain, arrakasta lortzeko bidea segurtatua izanen dute.

Lehen urratsa: ikastaroan izena ematea

Enpresa bat sortzeko behar-beharrezkoa da ongi prestatzea; zure negozioa zehatz-mehatz ezagutzea. Horrexegatik, landareak behar-bezala hazten erakutsiko da ikastaro honetan, baita enpresa bat sortzeko beharrezko diren ezagutza teknikoak ere. Ikastaroan haztegieta lan egiteko aukera izanen da, eta gisa bereko bertze enpresak eta lehenagotik negutegiak jarri dituzten emakumeak ezagutzea ere.

Ikastaroaren ondotik, bertzelde, enpresa martxan jarri arte sortu dai-

tezkeen zalantza eta arazo guzientzako laguntza eskainiko da. Lerro hauen bitartez, proiektu honetan interesaturik dauden emakume guziak animatu nahi ditugu lehen pausua ematera. Horretarako, informazio gehiago izateko edota ikastaroan izena emateko telefonoak dituzue hurrengoak. Zorte on denei! ■

UDABERRIKO ZIKLOA:

(Abendua-ekaina)

Geranioa, Sesamoa, Gineako sesamoa, Udaberri-lore, Petunia, Surfinia, Begonia, Koleosa, Ilen kultibatua, Ezkialore, Dalia, Tagetea, Cineraria, Berbena belarra, Biola.

NEGUKO ZIKLOA:

(Ekaina-abendua)

Bazko-lore, Ziklamena, Pentsamenduak.

telefonoak

ITG

Javier Brieba.....
948 27 80 11

CEIN

Txaro Saenz.....
948 42 60 42

Bidasoaldeko haurrendako lehen pilota txapelketa abiatu da

- Lehen partidak Beran jokatu dira igande honetan
- Hendaia, Bera, Lesaka eta Hondarribiko pilotariak ari dira

Bera, Lesaka, Hendaia eta Hondarribiako sei eta hamabi urte arteko pilotari gaztetxoak hasi dira Bidasoaldeko haurrendako lehen pilota txapelketan. Igande honetan Beran jokatu dira lehen partidak eta maiatzean, igandero izanen dira: 10ean Etxalarako pilotaplazan, 17an Lesakan, 24an Hendaian eta 31n finalak Hondarribian. «Esperientzia berria da –dio Luis Mari Retegi, antolatzaileetako batek– eta ikusiko dugu nola ateratzen den, baina itxura polita du». Aurten lau herritako pilotariak ari badira ere, datozen urtetan herri gehiagotara zabaltzeko intentzioa dute antolatzaileek. Gure Txokoa ko ordezkaria den Retegiren erranetan, «Hondarribiako Trantxek proposatu zuen ideia, baina lehen ere gisako zerbait egiten omen zen.



Sei eta hamabi urte arteko hainbat pilotari ari dira Bidasoaldeko lehen txapelketa honetan Artxiboa

Elkarte ezberdinak bildu gara eta aurten ongi ateratzen bada, datorren urtean erreka honetako bertze herritara ailegatu nahi dugu».

Irungobikoteren bat ere arituko da seguraski, baina Gipuzkoan arazoak omen dituzte hamalau urte baino lehen kompetizio kirolean aritzeko, «han eskolarteko txapelketak jokatzeko».

Beran hamabortz bikotek eta Lesakan bederatzik izena eman dutela kontuan hartuz, hainbat partida jokatu dira. «Pilotaplaza bere osotasunean hartuko dugu, ez bakarrik aitzin pareta. Ezker paretan ere marrak marraztuko ditugu, bertzenaz ez baita posible hainbertze bikote goiz batean aritzea. Ez dakit xuxen zenbat diren, baina aunitz» dio Retegik. Finalean ere bikote guztiak arituko dira, aitzineko partidetan lortutako emaitzen arabera, «lehenbizikoak bigarrenen kontra, hirugarrenak laugarrenen kontra».

David Alonsok irabazi zuen Leitzako XX. Herri Krosa

- 258 korrikalari aritu ziren apirilaren 19an

258 korrikalari hartu zuen apirilaren 19an Leitzan egindako Herri Krosaren hogeigarren edizioan. David Alonso donostiarra izan zen garaile, 8 kilometroak 31'25"tan egin baitzituen. Ondotik Josetxo Bakeriza (33'30") eta Aingeru Mindegia (33'48") leitzarra sar-

tu ziren. Emakumezkoen artean Olaberriako Amaia Intxausti nagusitu zen. 5 kilometroak egiteko 17'50" behar izan zituen. Rosi Talavera (18'55") eta Isabel Dumall (19'18") helmugaratu ziren bere ondotik. Lehen leitzarra Inmakulada Zubiñaga izan zen.

Antolatzaileen esanetan, aurtengoan gazteen parte hartzeak behera egin du nabarmen, helduenak gora egin badu ere. Parte hartu zuten 258 korrikalarietatik 32 leitzarrek ziren, umeak (142 ibili ziren) kontatu gabe. Pegatinek in bildutako dirua Joantxeneara joan zen.

Irabazleak

- **Benjaminak**
Mikel Morcillo
- **Infantilak**
Alain Diaz
Arantxa Sukunza
- **Kadeteak**
Iñaki Mihura
- **Jubenilak**
Iñaki Telletxea
- **Beteranoak**
Fernando Valpuesta
M^o Fernanda Olarra
- **1. leitzarra (bet.)**
Angel M. Juantorena
- **2. leitzarra (bet.)**
Julio Sagastibeltza
- **Aurrera elkarteoko lehendabizikoak**
Andoni Areizaga
Lurdes Juantorena.



❖ Euskal Herriko sokatira txapelketa

Lesakako Beti Gazte taldeak jantzi du Euskal Herriko txapelata 560 kiloko kategorian. Apirilaren 26an Amezketan egin zen finalean tiraldi guztiak irabazi zituzten lesakarrek. Bigarrena Aresoko taldea izan zen, beraz pisu arinean nafarrak nagusitu direla erran daiteke.

❖ Inaxio Errandoneak

ez du bere ohiko maila erakutsi eskuz banakako txapelketan eta Belokiren kontra 22-4 galdu zuen. Burlatarra sasoi betean egoteaz gain, Errandoneak gripea pasatu berria zuen eta ez zuen itxura onik eman.

❖ Errandonea Memoriala

Bi-lux taldeko Iñaki Macias nagusitu zen apirilaren 25ean Berako Gure Txokoa elkarteak junior mailako txirrindularientzat antolatutako proban. Ia beti bezala, Piedadeko igoeran erabaki zen lasterketa.

❖ Aizkol apostua

Antonio Senosiain nagusitu zen apirilaren 26an Donezteben jokaturako aizkol apostuan. Olaguekoak 56'44" behar izan zituen 20 kanardikoak mozteko eta Aiako Juan Manuel Erasunek, berriz, ordubete eta 56 segundo. 700 bat lagun agertu ziren Doneztebekeko pilota plaza urteko lehen apostua ikustera.

AGENDA EGUNEZ EGUN

AGENDA PRAKTIKOA

KONTZERTUAK

ITUREN

► **Apirilaren 24an**, ortzirala, Iturengo Herriko Etxeko sabaian, arratsko 10etan, Pottoka eta Petti bakarlariek joko dute.

LITERATURA

BERA

► **Maiatzaren 8an**, Harkaitz Cano eta Aitor Sarriegik olerki-bertsu saioa eskeiniko dute Gure Txokoa elkartearen, arratsaldeko 8,30etan.

► **Maiatzaren 15ean**, Jabier Muguruzak zenbait testu irakurri eta abestuko ditu Berako Kultur Etxean. Ilunabarrean.

SOLASALDIAK

ARANTZA

► **Maiatzaren 15ean**, hitzaldia eskainiko dute Jakoba Errekondo eta Iñaki Arregik, "UEMA eta herri tikiaren bizitasuna" gaiaren inguruan. Arratsko 8,30etan Ekaitza Elkartearen.

BERTSO AFARIAK

ITUREN

► **Maiatzaren 16an**, Iturengo Altxunea erretegiaren, 9,30etatik aitzin. Bertsolariak: Lujanbio eta Lizaso. 3.000 Pta.

HERRI KIROLAK

LEKUNBERRI


► **Maiatzaren 10ean**, eguerdiko 12etan Leitzako Joantxenea base-riaren aldeko jaialdia.

HERRI URRATS

SENPERE

► **Maiatzaren 10ean** ospatuko da Senpereko aintziran, igande honetan.

ttipi-ttapa TELEBISTA



Eta Apirileko Feriatik UEMA Egunera

Hurrengo agerraldia, maiatzaren 24an

TTIPI-TTAPA telebistako promozio kanpainaren lehen-biziko agerraldia egin zen Apirileko Ferian, joan den hilabetearen 26an. Feria, berez, inguruko merkataria eta zerbitzu profesionalen agertokia izan zen, eta goiz arratsaldean, mundu bat jende hurbildu zen Almandozko Beolara hango animazioa eta desfileak ikustera. TTIPI-TTAPA TELEBISTAK goizeko desfilearen irudiak bildu zituen eta jendeari egin elkarriketekin batera, arratsaldean errepor-

taje tiki bat emititu zuen hantxe bertan.

Laburbilduz, erraten ahal da telebistaren lehen agerraldiak interesa piztu zuela jendearen artean.

UEMA Egunerako, ordea, ekitaldi berezia ari gara prestatzen. Horretarako, Lamixine Berako Antzerki Taldearen laguntza izanen dugu. Eguerdiko 12,30etan Arantzako Herriko Etxean egingen den ekitaldi instituzionalaren ondotik izanen da hori, maiatzaren 24an.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 158 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 90 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal
- Extra550
- 1.koa525
- 2.koa500
- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal
- Extra560
- 1.koa525
- 2.koa510
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 18.000 eta idixkoak 24.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

DISKAK



«Basque Dub Foundation»

Sustraidun Roots Dub
Massive Sounds Records

Euskal Herrian reggae musikarako zaletasun handia bada go ere, orain arte argitaratutako diskak (Potato, Ke Rule...) bide erdian gelditu direla erran daiteke. Eskuarrean dugun hau, berriz, Dub-aren bide esperimentalagoetara zabaltzen da, izugarriko emaitza onarekin gainera. Bilbon jaio baino gaur egun Londresen bizi den Iñaki Yarritu da proiektuaren sor-

tzaile eta burua, baita kantu guztien egilea ere. Honetarako, laguntzaile andana bat izan du bere ondoan, Jamaikako Mad Professor ekoizle famatua hoiaren artean. Beraz, lasai ederrean erran dezakegu Sustraidun Roots Dub hau Euskal Herri mailan musika mota honen baitan egin den saiakera (eta lan) borobilena dela.

JAKIN BEHARREKOAK

Hozkailua behar bezala antolatzea



Janari mota bakoitzak bere lekua du hozkailuaren barnean.

Ahora eramaten ditugun janariak egoera onean egoitea nahi izaten dugun heinean, hozkailuan ditugun bitartean jan-edatekoak behar bezala zaintzeak badu bere garrantzia. Horretarako, jakiak hozkailuan nolahi sartu beharrean, kontutan eduki beharko genituzke zenbait aholku:

- Ez utzi ontzi edo jakirik atzeko paretaren kontra, hortik ateratzen baita hotza. Pareta hori estaliz gero, hotza ez da hozkailuan zehar hedatuko.

- Jaki gordinak plater kuzinatuetatik bereiztea komeni da. Azken hauek hozkailuaren goiko apaletan gordezea da egokiena, tenperatura baxuagoa den tokian.

- Poliespanezko azpilek ez dute balio, hotzak ez baitu material hori zeharkatzerik.

- Usain txarreko jakirik ote dagoen maiz begiratu behar da.

- Hozkailua behar baino gehiago betetzen badugu, ai-

re hotza tartean ibil dadin ez dugu tokirik uzten.

- Janari beroak ez dira hozkailuan sartu behar, aparatua- ren tenperatura goitu eta gainontzeko jakiei kalte egiteko arriskua baitago.

- Saiatu hozkailuko atea ahalik eta guttien irekitzen, eta itxiterakoan ongi itxi du-

gula segurtatu.


- Horma erregulariki kentzea komenigarria da. Zapi busti batekin garbitu eta idortzen utzi. Detergente arina edo bikarbonatoa erabili.

Kontserbazio mugak

- Arrain freskoa, ontzi estalian eta gatz pixar batekin . . . egun bat
- Arrain eta haragi egosiak, hondarrak 1/2 egun
- Esnea (idekia), barazki egosiak eta etxeko postreak . . . 2/3 egun
- Haragi gordinak 4/5 egun
- Barazki gordinak Astebete
- Arraultzeak 3 aste
- Nata, jogurt, gasna eta gurinen iraungitze-data errespetatu.

Hozkailua behar baino gehiago betetzen badugu, aire hotza tartean ibil dadin ez dugu tokirik uzten.

LIBURUAK



EZPALA

7. alea

"Sexua, asmatu gabeko iraultza"

Bere zaspigarren alea argitaratu berri du Ezpalak, ezker abertzaleko aldizkariak. Orain arteko ibilbidean, Euskal Herriko egoera sozio-politikoaren inguruko hainbat gai landu dira bertan, "Emakumea eta Euskal Herria", "Kontrol soziala eta errepresioa", "Deskolonizazio kulturala" besteak beste. Kolaboratzaile andana batek bidalitako artikuluez osatzen

da aldizkaria, euskaraz, gaztelera nahiz frantsesez emanak. Testu bakoitzaren ondoren itzulpen-laburpen tiki bat aurkituko du irakurleak. Euskal Herriko independentzia eta gizarte berdintasunaren alde borrokatzen duten guztien eztabaida gune irekia izan nahi du Ezpala aldizkariak, Ipar eta Hegoaldeko muga artifizialak hautsiz.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► **Maiatzaren 10ean** Senperera joanen dira Baztango Mendigoizaleak, Herri Urrats dela eta.

► **Maiatzaren 10ean** Aritzakunerat joanen dira Baztan Ikastolako Mendigoizaleak.

► **Maiatzaren 17an** berriz, Doneztebe-Mendaur-Sunbilla-Donztebe ibilaldia egingen dute.

KONTZERTUAK

ETXALAR

► **Maiatzaren 9an**, Piztiak taldea entzungai Herriko Ostatuan. Beren azken diska aurkeztuko dute, "Argia eta Itzala". Arratseko 10etatik aitzinera.

► **Maiatzaren 16an**, Half Foot Outside Iruñeko rock taldea. 10etan Herriko Ostatuan.

DONEZTEBE

► **Maiatzaren 23an**, 12 Ostatuan Wichita rock eta blues elektrikoa jotzen duen talde frantziarra.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► **Maiatzaren 4tik 10erat** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

► **Maiatzaren 11tik 17rat** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Goizueta.

► **Maiatzaren 18tik 24rat** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza, Goizueta.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188 

...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BERA. Pisua salgai. Bainugela eta sukaldea mobilizatua. Eguzkitsua. ☎ 948 630508.

BERA. Pisua salgai, Itzea 4an. Lau logela, 2 bainugela, egongela eta sukalde ekipatua. Gela guziak kanpoaldera begira. Leihoak "Climalit". ☎ 948 630915.

BERA. Kanttonberri 3an 2. pisua salgai. 3 logela, egongela eta bainua. Kanpora ematen du. Igogailua bada. 10.800.000 Pta. ☎ 943 619 618 edo 943 630 771.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

Bikote gazte batek etxe bat berritzeko edo moldatzeko erosiko luke Baztan, Ultzama edo Doneztebe inguruan. ☎ 907 099 352.

Borda erosiko nuke, edozein egoeratan. ☎ 948 451 841.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

LEITZA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 510 083.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

IRUÑEA. Neska langile bat behar da pisua osatzeko. ☎ 948 451658 (gauetan).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

Martxan dagoen komertzioa salgai
BERA.

56 m²ko denda eta 75m²ko gibelaldea. Guztiz ekipatua.
ROMANO DEKORAZIOA
Legia, 1 ☎ 948-631137/630941

LESAKA. 23 m²ko bajera salgai, Bittiria 37an. 3.000.000 Pta. ☎ 948 637 938.

LEITZA. Bajera salgai, Patxi Arrazola karrikan. 2 milioi pezeta. ☎ 948 510167 (gauetan).

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. 100 m²ko bajera, San Esteban karrikan, errentan emanen nuke. Edozein denda edo bulego jartzeko prest dagoena. ☎ 948 630 449 (Eguzkerdi edo arratsetan).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALGAI

BERA. 28.000 m²ko lur eremua salgai. ☎ 948 630040.

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

Aulkiak konpontzen dira. ☎ 948 592136 (Jesusa).

LANA

302 ESKAINTZAK

Etxalarko jatetxe batean lan egiteko sukaldaria behar dugu, aste hondarretan eta besta egunetan. ☎ 948 635235/948 635038.

Interna moduan aritzeko neska bat behar dugu Donostian. Arratsaldeak libre. ☎ 943 322065 (10etatik 1etara eta 4etatik 8etara), 948 631 174 (asteburuetan).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Citroen Xantia salgai, NA-AP 1.9, Turbodiesela, haitze egokituarekin. ☎ 948 510558 (8etatik aitzinera).

Opel Corsa GSI salgai, NA-9555-AF matrikuladuna, egoera onean. ☎ 948 634 106.

Fiat Fiorino 1.9D, 1992koa, mixtoa eta 8 eserlekukoa salgai. ☎ 948 630 491.

Land-Roverrak erosten ditugu, berdin zaigu egoera. ☎ 948 514037.

Nissan Patrol motza salgai, lau zilindrokoa. ☎ 948 460323.

Nissan 100 NX salgai, NA-AG. Deportibo antzekoa. ☎ 948 634 113 (eguzkerdian).

Opel Corsa 1.4i, Sport, 96 zaldi, 73.000 km, NA-AJ, irriatiarekin. 830.000 Pta. ☎ 948 630 047 (Josema, gau- ez).

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAU MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak: Ford Fiesta XR2, Corsa D, Astra D, Peugeot 309 D, 505D merkea, Cherokee TD 5 atekoa, Kadett 1.8 lau atekoa. Suzukiak: Vitara eta Samurai.

Audi SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.

☎ 948 450 354 • DONEZTEBE

NISSAN BERABI tailerrak

☎ 948631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:

Nissan Trade 2.0 chasisa
Nissan Primera 2d.LX, NA-AK
Opel Corsa
Peugeot 309 GR - NA-T, polita

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Collie arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 948 387077 (eguzkerdi-gauetan).

Boxer txakurkumeak salgai. ☎ 948 630218.

Ahari mutur gorria salgai, urtekoa eta arraza onekoa. ☎ 948 510463.

Ahari mutur gorria salgai, bi urtekoa. ☎ 948 510517.

Larre-behiak salgai. ☎ 943 160616 (eduzkerdian) edo 943 885007.

Jatorrizko euskal artzai zakurkumeak salgai. ☎ 948 635121 (arratseko 8etatik 9etara).

28 ardi-kupo salgai Goizuetan. ☎ 948 514061.

Txekor bat blonda arrazakoa salgai, 2 urte terdikoa eta zezengairako egokia. ☎ 948 631098.

Bi aker gazte salgai Leitza. ☎ 948 510503.

Ahari mutur-gorria salgai, bi urtekoa. ☎ 948 510517.

Katukume pertsiarra erosiko nuke. ☎ 948 450 936.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Labadora salgai. Merkea. ☎ 948 450691 (Doneztebe).

Idaz-mahaia eta delineaite-mahaia salgai. ☎ 948

387077 (eguerdi-gauetan).

Petroleo-berogailua japoniarra salgai, kirol. ☎ 948 387077 (eguerdi-gauetan).

Kirol-banku gradualea salgai, barra luzea eta diskoarekin. ☎ 948 387077 (eguerdi-gauetan).

Masai-ohatila salgai. ☎ 948 387077 (eguerdi-gauetan).

Luzerna salgai, fardo ttikitana. ☎ 908 777 517 (Bernardo).

Bi ohatze turko (jergoi tapizatuarekin eta lau hankekin) salgai, oso egoera onean. ☎ 948 634196.

Kotxe-kapota-aulkia 'Bebe Confort' salgai, egoera onean. 15.000 pezeta eta osagarriak erregalatzen dire. ☎ 943 513095.

Kotxearentzat emisora salgai, 'President Jack' markakoa eta 5 urteko lizentzia ordainduarekin. Prezioa: 15.000 pta. ☎ 948 510169 (gaueko 8etatik 10etara, Jose Mari).

Txapa galbanizatu salgai. 4,5 eta 5 metroko txapa lehorra egiteko. ☎ 948 393180 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean).

Traktore txiki bat erosi goguz. ☎ 948 393 131 (gauez).

HARREMANAK

801 AGURRAK

Elizondoko Ibon Ursuegiri: ZZUE Ap. 28. Segi beti bezala. Klasekoen partez.

Goizuetako Irneri: Bordaxon nirekin dantza egin zenuenetik txora-txora egin naukazu. E. Ola Ola.

Lesakako Begoña Tapiak 19 urte bete ditu maiatzaren 3an. Zorionak eta musu haundi bat... Arras ona zaude.

Lesakako Oihana F. eta Mari Mar M.ri: Bordaxora joan bai, baina hurrengoan begi argiak dituen hori

zuekin batera eraman. Ea hori egiten duzuen.

Leire eta Aitziber-i zorionak beraien egunean (maiatzak 15 eta 21). Aupa Gaztetasuna! Lagunen partez.

Iruritako **Gurutze Etxeberriari:** zorionak maiatzaren 11n 19 urte beteko dituelako. Pitu eta Mirenen partez.

Erratzuko **Pilar Iribarrenek** maiatzaren 4an urteak bete zituen. Urteak ospatzeko espero dugu patxaran botila prest edukitzea. Zorionak.

Estebantxori: ea noiz moztun duzun melena hori, aur-



pegia ez zaizu ikusten eta. Segi beti bezain majo eta espero dugu ez egitea beste gehiago, adin horretan oso arrisksua baita. Zorionak! Herriko lagunak.

Emiri: Txanpain gutxiagatera zenuenez, igande hauetako batean zuregana joanen gara merendatzera, baina hire kontura, aguan-

tazak. Zer sentitzen da horrenbete urterekin? Bastoia ibiltzeko beharra? Auniz urtez. Herriko lagunak.

Azpilkuetako **Juan Andres:** Oso begi politikak dituzu. Segi horren majo. Bi nesken partetik.

Urdazubiko **Patxi J.:** Oso ona zaude. Zoratuta gauzakazu. Elizondoko bi neska.

Zorionak Etxalarko **Zipari:** maiatzaren 2an urteak bete dituelako. Lagunen partetik, bereziki Garbiñeren partetik.

Amagoia F. Goñi irundarrak 16 urte bete ditu apirila-

ren 23an. Zorionak Irun eta Berako lagunren partetik.

Erratzuko **Jon Irigoien** eta Iruritako **Santi Goienetxe:** ez segitu horrenbeste zuek dakizuen bi neska horiei.

Urdazubiko **Joxemi Bengoetxe**ari zorionak bere urtebetetze egunean. Aupa Zape! Klasekoen partetik.

Berako Ana Danboriena: zorionak zure urtebetetze egunean. Aupa korrikalari! Klasekoen partetik.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Sebastian Teilletxea Urrutia arraiozarrak urteak beteko ditu maiatzaren 14an. Zorionak familia eta bereziki gurasoen partetik.



Maialen Irigoien Fagoagak 7 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Auniz urtez familiaren partetik.



Maitane Irigoien Fagoagak 11 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Auniz urtez familiaren partetik.



Kattalin Fagoaga Telletxeak 4 urte beteko ditu maiatzaren 1 Sean. Auniz urtez familiaren partetik.



Maddi Uranga Maritxalar-ek 9 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Auniz urtez familiaren partetik.



Haizea Txoperena Kondek urteak bete ditu maiatzaren 18an. Auniz urtez familiaren partetik.



Esteban Mendiburuk urteak bete ditu. Zorionak azpilkuetarren partetik.



Emiliano Mendiburuk urteak bete ditu. Auniz urtez Azpilkuetako partetik.



Sunbillako **Maitane Eizagirreri** zorionak maiatzaren 17an urteak beteko dituelako. Klaseko hiru neska eta mutiko bat.



Johanna Ramirez Romero lesakarrak urteak beteko du maiatzaren 23an. Zorionak guraso eta familiaren partetik. Muxu bat.



Joseba Irazoki ekalartarrak maiatzaren 1ean egin du urtea. Zorionak eta muxu haundi bat amaxi eta familiaren partetik.



Gurutze Etxeberria eta Amagoia Otondok 19 eta 7 urte beteko dituzte maiatzaren 11 eta 3an. ZORIONAK familiaren partetik.



Aurtizko **Aitziberi** auniz urtez zure 17. urtebetetzean. Armaurri azpian bizi garen lagun partetik.



Ander Maritxalar Narbarte lesakarrak 8 urte beteko ditu maiatzaren 7an. Zorionak osaben eta aitaxien partetik.



Aurkene Urria Garrok 21 urte bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak familia eta Paskualen partetik.



Zorionak **Felix Bergara Elizondori** 53 urte bete dituelako. Bere lagunren partetik.



Goizuetako **Juan Miel Apeztexeari** zorionak maiatzaren 7an urteak bete dituelako. Bihotzez Irati eta Julenen partetik.



Aimar Zugarramurdik maiatzaren 9an beteko ditu 4 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko partetik.



Maria Jose Elizegi elizondarrak urteak beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak senarra eta alabaren partetik. Muxuak.



Iñaki Anso Dendarrieta elizondarrak urteak beteko du maiatzaren 5ean. Zorionak! Aitaxi-amaixi, guraso, osaba, lehengusuak.



Mikel Iturria beratarrek urteak beteko ditu maiatzaren 20an. Auniz urtez familiaren partetik.



Ibai Iturria beratarrek urteak egin ditu maiatzaren 7an. Auniz urtez familiaren partetik.



Urdazubiko **Yolandari**, zorionak, 16 urte bete baititu maiatzaren 6an. Institutuko koadrilaren partetik. Segi beti bezain alai.

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Jabier Maia Sadaba
lesakarrak 3 urte bete ditu apirilaren 26an. Aunitz urtez, familiaren partetik.



Markel Maia Sadaba
lesakarrak 7 urte bete ditu apirilaren 29an. Aunitz urtez, familiaren partetik.



Irati Arozena Almandozek 11 urte bete ditu beratarak 5 urte bete du maiztaren 2an. Zorionak guraso eta Julenen partez eta muxu bat (Backstreet Boys).



Leire Eltzaurdia Mendiberri
beratarak 5 urte bete du maiztaren 19an. Zorionak gurasoen partetik. Muxu bat.



Mikel Iriarte Pikabea
lesakarrak maiztaren 18an 22 urte bete du dituenek, zorionak eta muxu bat. Ah!



Xabier Jaunarenak lau urte bete du maiztaren 11n. Ongi pasa eguna, Zubietako familia, aita, ama eta Jonen partetik. Zorionak.



Mikel Salaberria eta Mª Jose Zabala goizuetarrei apirilaren 27an bi urte ezkondu bete dituztelako, zorionak beraien guraso, senide eta iloba Yoniren partetik.



Patxi Zabala goizuetarrak 14 urte bete ditu maiztaren 6an. Zorionak guraso, senide eta iloba Yoniren partetik.



Aitziber Erasun doneztebarrak 16 urte bete ditu apirilaren 7an. Zorionak bere lagun partetik.



Ander Bereau Zapirain lesakarrak 14 urte bete ditu apirilaren 23an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Pantxika Lastra saratarak 20 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak zure lagun partetik.



Iban Larra-txeia Irigoien elizondarrak 13 urte betelo ditu maiztaren 8an. Zorionak guraso, arreba eta Claritaren partez. Musuak



Maite Etxeberria Aleman arizkundarrak 5 urte bete ditu apirilaren 14an. Zorionak familiaren partetik.



Iraia Ceballos leizarrak 8 urte bete ditu maiztaren 5ean. Zorionak eta muxu bat gure neskatu politari familiaren partetik.



Joxantonio Zugarramurdi Elizondor: Zorionak 'Xakito!' Zuretara guztiok zurekin gaude zure egunean eta beti. Musuak...



Fernando Goia Eskudero goizuetarrak 16 urte bete ditu maiztaren 4an. Zorionak eta musu asko familiaren partetik.



Elixabet Elizondo aranztarrak 6 urte bete ditu maiztaren 6an. Zorionak familia eta bereziki izeba-riren partetik, Muxu bat, moñoña.



Amaia Leizaola lesakarrak 22 urte bete ditu apirilaren 23an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez. Ongi pasa!



Iraide Sagardia Amiano Gaztelukoak 6 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak eta musu bat aitaxo, amatxo eta anaiairen partetik.



Mari Karmen Muñoz zorionak apirilaren 20an 17 urte bete dituelako. Ea noiz gonbidatzen nauzun txanpan batera. Ongi pasa. A.S.



Ainhoa Sagarazu Saldias irundarrak 6 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak aita, ama, Unai eta amatxi Roxitaren partetik.



Unai Urkiola leizarrak 5 urte bete ditu apirilaren 29an. Zorionak gure trasto hoberenari bere familiaren partetik.




Leire Mitxelena Gamio aranztarrak 9 urte bete ditu apirilaren 29an. Zorionak aita, ama eta Itziaren partetik.



Mugairiko Anuska Ustarrozeri zorionak eta segi horrela zure urtebetetzea ospatzen. Mugairiko lagunak eta 'kandidato' baten partetik.



Patxi Bengo-txea Ibarrek 7 urte bete ditu maiztaren 1ean. Aunitz urtez zure aita eta amaren partetik.



Sukaldean hasi zirenei, segi jotake, nekatu arte. C'est la vie! Aunitz urtez! Killirrak.



Jesus Anzizar zorionak maiztaren 11n urteak bete dituelako. Lesakako amatxi, ataxi, lehengusu, osaba, izeba eta gurasoen partetik.



Sunbillako Pakita Iriarteri zorionak maiztaren 8an 91 urte bete dituelako. Ameriketako bi semeak. Lesaka, Sunbilla eta Doneztebeko familia.



Jesus Anzizar zorionak maiztaren 11n urteak bete dituelako. Maika, Lentejo, Maite, Manuel, Iratxe eta Itxaso-riren partetik.



Burlatiko Manuel Labiano zorionak maiztaren 11n. Bere emazte, alaba eta Doneztebeko familien partetik.



Mikel Telle-txea Garmendia donamariarrak 12 urte bete du maiztaren 10ean. Zorionak guraso eta familiaren partetik.



Jose Mª Etxe-beste elizondarrak urteak bete ditu maiztaren 2an. Zorionak lane-ko lagunak, Maite, Iñaki eta Nekane-riren partetik.



Joxe Antonio Migelena doneztebarrak 13 urte bete ditu maiztaren 10ean. Zorionak gure mutil katxarroari. Zure gelako neska.



Laura Jaen elizondarrak 5 urte bete ditu maiztaren 7an. Zorionak bere aita, ama, Anne eta Jasoneren partetik.



Lesakako Ainhoa Gonzalez zorionak, apirilaren 15ean urteak bete dituelako. Lagunen partetik.



Lesakako Oskia Baraibari zorionak apirilaren 20an urteak bete dituelako. Bere lagunak partetik. Laister arte!



Julen Anzizar zorionak apirilaren 12an urteak bete dituelako. Lesakako amatxi, ataxi, lehengusu, osaba, izeba eta gurasoen partetik.



Jon Zelaia Danboriena beratarak maiztaren 16an egina ditu 9 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Asier Irigoien Ibarra beratarak maiztaren 16an egina ditu 9 urte. Zorionak zure guraso eta Nagoreren partetik.



Lesakako Patxi Ubiria urteak bete ditu maiztaren 1ean. Zorionak bere familiaren partetik.



Izaro Retegiri zorionak maiztaren 4an bete dituelako urteak. Guraso, ahizpa, Lesakako familia eta Igantzioko ataxi-riren partetik.



Igor Petrirena beratarak 13 urte bete ditu maiztaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Andoni Lazkanotegi Matxiarena beratarak maiztaren 12an bete du urtea. Muxu bat aita eta amaren partetik.



Karmen Sukuntza leizarrak apirilaren 30ean bete ditu urteak. Urte askoz eta ongü pasa. Familia eta lehengusuak.



Jon Mazizor Mitxelena aranztarrak 2 urte bete ditu apirilaren 7an. Zorionak bere gurasoen partetik.



Pakita Ibarra sunbilarrak 91 urte bete ditu maiztaren 8an. Zorionak Lesaka, Doneztebe eta Sunbillako familien partetik.



Jaione Telle-txea Mendi-gutxia lesakarrak urteak bete du maiztaren 8an. Zorionak Amaia, atxa eta amaren partetik.



Jon Zelaia Danboriena beratarak maiztaren 16an egina ditu 9 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Asier Irigoien Ibarra beratarak maiztaren 16an egina ditu 9 urte. Zorionak zure guraso eta Nagoreren partetik.



Lesakako Patxi Ubiria urteak bete ditu maiztaren 1ean. Zorionak bere familiaren partetik.

MENDAUR MOTOR



ASTRA BERRIA

IZAR BAT SORTU DA.
UTZI BERE DIRDIRAK ERAMAN
ZAITZAN ETA ZATOZ AUTOA
PROBATZERA.

Leitzako errepidea

☎ 948 45 03 33

Doneztebe



Ligier Ambra berria

Hegoaldean
homologatuak

ETCHEGARAY GARAJEA



◆ *Auto
karnetarik
gabe*

◆ *10
egunetan
eskuratzeko
moduan*

Baiona/Kanbo bidean

☎ 07-33-5-59 93 04 37

LARRESORO

PLAIAUNDI-IRUN INSTITUTUA

25. urte

irakasten

1973-1998

GURE IKASKETAK:

HSAOL BATXILERGOAK:

(16-18 urte):

- Natur- eta Osasun Zientziak
- Humanitate eta Gizarte zientziak

LANBIDE HEZIKETA BERRIA:

Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Merkataritza
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Administrazio Kudeaketa

Go. Mailako Heziketa Zikloak:

- Haur Hezkuntza
- Administrazio eta Finantzak
- Informatiko Sistemen Administrazioa
- Informatika Aplikazioen Garapena
- Dietetika
- Garraioaren Kudeaketa

